Kimika Analitikoa Saila

Metodo analitikoen garapena disruptore endokrinoen biokontzentrazioa arrainetan determinatzeko

Development of analytical methods to estimate the bioconcentration of different endocrine disrupting compounds in fish

A thesis submitted for the international degree of
Doctor of Philosophy

Oihana Ros Ibarretxe
2016eko uztaila

(c)2016 OIHANA ROS IBARRETXE

ESKER ONAK!!!!!!!!!!!!!!!!!!

4 urte igaro dira dagoeneko eta sinetsi ezin dudan arren, tesia idatzi dut!!! Nondik hasi ere ez dakit, hainbeste izan zarete tesi osoan zehar laguntzeko prest egon zaretenak…

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet nire bi zuzendari "ofizialei". Jefe, eskerrik asko 4 urte hauetan ni aguantatzeko izan duzun pazientzia infinitoagatik. Askotan pentsatuko zenuen zure terapia psikologikoak alferrikakoak izango zirela, baina ez da horrela. Tesia entregatu ostean jarraian hasiko naiz "como hablar en publico" liburua irakurtzen. Rubia, gracias por todas las horas invertidas en estos 4 años, pero especialmente por este último sprint. Durante toda la tesis he aprendido un montón, pero sobre todo que no anova, no future, y que las tablas horizontales son una kaka!! Descansa un poco que lo necesitas.

Nestor, the big boss, eskerrik asko tesia egiteko aukera emateagatik eta nirekin izandako pazientzia guztiagatik. Esto es una injusticia!!!! Triziklo karrera bat daukagu egiteko…

Maitane, zuri ere eskerrik asko bide luze honetan izan ditudan zalantza guztiak argitzen laguntzeagatik. Ez dago txokolate nahikorik hori ordaintzeko!!!

Olatz, Aresatz eta Patricia Navarro, eskerrik asko masterra zuekin egiteko aukera emateagatik, azken finean masterra izan baitzen tesiaren abiapuntua. Ekhine, zuri ere eskerrik asko masterrean zehar (eta ondoren) laborategian pasa ditugun ordu guztiengatik.

Ezin ahaztu tesi osoan zehar beti laguntzeko prest egon zareten guztioi, batez ere azken txanpa honetan tesia irakurri eta zuzendu duzuenoi!! Mila esker. Laborategian laguntzeko prest egon zaretenoi ere, eskerrik asko, batez ere Jon Kepa, Josu eta Ander lankideak. Eta Manolit@ko neskak!!! Zenbat buruhauste manolit@rekin… Unagilent, eskerrik asko L9an izandako arazo guztiak (eta L1eko batenbat) konpontzen laguntzeagatik!!

Mintegitarrok!!! Mila esker 4 urte hauetan zehar mintegitik ibili zareten guztioi!!! Juergak, bidaiak, afari/bazkariak… eta nola ez ostiral txokolateroak, gailetak, un san quiero, nocilla bokadilloak, urtebetetzeko tartak, bonboiak, palomitak… eta eskerrik asko urtebetetzeak ospatzeko mazedonia ekarri duzuen guztioi!!! Fondo norte… eskerrik asko gure txokoa bizirik mantentzen laguntzeagatik, munduko muralik politena daukagu. Hambrunatarroi bebai eskerrik asko bazkalorduan pasa ditugun ordu guztiengatik, eta coffee taldeari! Luis Angel, gracias por mantener la cafeteria siempre abierta!!!

Thank you so much to the Canadian team. Eskerrik asko Mehran for giving me the opportunity to be in Canada for 6 months and let me play with the Jayflex. Tommy, thank you very much for your help in the lab, and specially for teaching me about the importance of drinking a big cup of coffee every morning. I am afraid I cannot survive without caffeine… Sam, thank you very much for the time we spent fighting with the PLE. I hope you get well soon. Paula and Gracina thank you for all your help!

Biologiako kideetaz ere ezin naiz ahaztu. Disekzioetan lagundu duzuen guztioi, baina bereziki Urtziri PIEko esperimentuan laguntzeagatik eta Cristina eta Mareni tesi osoan zehar zalantza biologikoak argitzen laguntzeagatik eta arrantzan joandako egun guztiengatik. Cristina, orain badakit arrainaren ze zati jan daitekeen eta zein ez, eta Gernikako arrainak… ba… full of love!!!

Oulu family… estáis como una cabra pero no cambies nunca!!! (Laura, cuando leas esto entenderás todo, pero vas muy mal encaminada…). Cuando algo se torcía en el labo, mensaje al grupo paralelo y conseguíais que se me olvidasen todos los problemas. Y cuando los problemas eran muy gordos y no se podían solucionar via whatsap, no problem: quedada en Madrid, Granada, Orgaz (fin de semana a dieta), Burgos-Gasteiz, Chicago, Milan, Zarautz... Y todo solucionado. Kiitos paljon kaikesta ja eivät muutu!! And waiting for the next one!!

Kuadrilakoei eskerrik asko txikitatik hor egoteagatik. Garai hau amaituta berriro irteten hasiko naiz!!!

Azkenik, baina ez horregatik azkenak, familiari bihotz bihotzez eskerrik asko txikitatik, eta batez ere tesi honetan zehar ni aguantatzeagatik!!! Aita, badakit zientzia ez dela zurea baina eskerrik asko tesi erdia irakurtzeagatik. Ama, ya me cambiará el carácter, no te preocupes….

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila mintegiko plazan!!!

Bilbon, ekainak 20

Abbreviations / Laburdurak vii

1-Sarrera

1. Lehentasunezko Konposatuak eta emergenteak 03
    1.1. Konposatu disruptore endokrinoak 07
        1.1.1. Musketa fragantziak 09
        1.1.2. Bisfenola-A 10
        1.1.3. Pestizidak 12
        1.1.4. Estrogenoak 14
        1.1.5. Ftalato esterrak 16
        1.1.6. Alkilfenolak 18
2. Konpostu kimikoak ingurumenean 19
    2.1. Konposatu kimikoak ur-ingurumenean 19
    2.2. Konposatu kimikoak biota laginetan 23
3. Ingurumenean dauden konpostu kimikoen analisia 30
    3.1. Erauzketa-teknikak 30
        3.1.1. Lagin likidoak 30
        3.1.2. Lagin solidoak 33
    3.2. Garbiketa-teknikak 35
    3.3. Hidrolisi-urratsa 37
4. Konpostu kimikoen azterketa 40
    4.1. Gas-kromatografia 40
    4.2. Likido-kromatografia 46
5. Konposatu kimikoen metaketa 49
    5.1. EDCen metaketa arrainetan 50
6. Erreferentziak 53

2-Helburuak / Objectives

1. Helburuak 75
2. Objectives 77

3-Microextraction with polyethersulfone for the analysis of priority and emerging compounds in water samples

1. Introduction 81
2. Materials and methods 83
   2.1. Reagents and materials 83
   2.2. Sampling 84
   2.3. Extraction, desorption and derivatisation procedures 85
   2.4. Gas chromatography-mass spectrometry analysis 86
   2.5. Liquid chromatography-tandem mass spectrometry analysis 87
3. Results and discussions 88
   3.1. Optimisation of LC-MS/MS 88
   3.2. Optimisation of sample preparation conditions 88
      3.2.1. PES desorption solvent nature and time 88
      3.2.2. Extraction parameters evaluation 90
      3.2.3. Optimisation of the stirring speed 91
      3.2.4. Time profile 92
   3.3. Matrix effect evaluation 93
   3.4. Performance of the analytical methods 95
      3.4.1. PES-GC-MS analysis of non-polar compounds 96
      3.4.2. PES-silylation-GC-MS vs PES-LC-MS/MS for polar compounds 99
   3.5. Application of the developed methods to real samples 102
4. Conclusions 103
5. References 105

4-Determination of endocrine disrupting compounds and their metabolites in fish bile

1. Introduction 113
2. Materials and methods 115
   2.1. Reagents and materials 115
   2.2. Bile analysis 117
      2.2.1. Sample collection 117
      2.2.2. Extraction and clean-up of bile samples 118
      2.2.3. Water analysis 119
      2.2.4. GC-MS analysis 119

3. Results and discussions 120
3.1. Optimisation of the derivatisation step 120
3.2. Optimisation of the solid phase extraction step 121
3.3. Study of the matrix effect and optimisation of the clean-up step 123
3.4. Performance of the analytical method 127
3.5. Application to real samples 129
4. Conclusions 135
5. References 136

5-Simultaneous enzymatic hydrolysis and extraction of endocrine disrupting compounds in fish bile using polyethersulfone polymer

1. Introduction 143
2. Materials and methods 149
2.1. Reagents and materials 149
2.2. Synthesis and separation of individual glucuronide compounds 151
2.3. Bile collection 152
2.4. Simultaneous enzymatic hydrolysis and extraction of bile samples 153
2.5. LC-MS/MS analysis 153
3. Results and discussions 154
3.1. Optimisation of sample preparation 154
3.1.1. Evaluation of polymeric material 155
3.1.2. Enzyme amount 156
3.1.3. Time profile 157
3.1.4. Desoprtion solvent nature and time 158
3.2. Study of the matrix effect 159
3.3. Performance of the analytical methods 161
3.4. Application to real samples 164
4. Conclusions 164
5. References 166

6-Determination of endocrine disrupting compounds in fish liver, brain and muscle using focused ultrasounds solid-liquid extraction and dispersive solid phase extraction as clean-up strategy

1. Introduction 169
2. Materials and methods 171
   2.1. Reagents and materials 171
   2.2. Sample collection and pretreatment 172
   2.3. Sample extraction and clean-up 174
   2.4. LC-MS/MS analysis 173
3. Results and discussions 174
   3.1. Optimisation of the clean-up strategy 174
   3.2. Optimisation of the extraction temperature and extractant nature 177
   3.3. Evaluation of the matrix effect 180
   3.4. Performance of the analytical methods 184
   3.5. Application to real samples 186
4. Conclusions 188
5. References 189

7-Galindoko araztegiko ur-efluenteari esposatutako arrainen behazunean neurtutako disruptore endokrinoen biokontzentrazio-mailen determinazioa

1. Sarrera 197
2. Materialak eta metodoak 199
   2.1. Erreaktiboak eta materialak 199
   2.2. Arrainen esposizio esperimentuak 200
   2.3. Ur-laginen tratamendua eta analisia 201
      2.3.1. Ur-laginen azterketa 201
      2.3.2. Arrain-behazunaren azterketa 203
   2.4. Metodoaren kalitate parametroak 204
   2.5. Biokontzentrazio balioen estimazioa 205
3. Emaitzak eta eztabaida 206
   3.1. EDCen metaketa 206
   3.2. Behazunaren metatze/eliminazio gaitasunaren azterketa 213

3.3. Material polimerikoen erabilera arrainaren behazunaren metaketa-ahalmena simulatzeko 214
4. Ondorioak 215
5. Erreferentziak 217

8-Disruptore endokrinoetara esposatutako lupien (*Dicentratchus labrax*) organo desberdinetako metaketa-azterketa, kontrolpeko baldintzetan

1. Sarrera 223
2. Materialak eta metodoak 226
2.1. Erreaktiboak eta materialak 226
2.2. Lagin-bilketa 227
2.3. Laginen azterketa 228
2.3.1. Lagin solidoen azterketa 228
2.3.2. Lagin likidoen azterketa 229
2.3.3. Ur-laginen azterketa 229
2.4. LC-MS/MS-aren bidezko azterketa 230
2.5. Kalitate parametroak 231
3. Emaitzak eta eztabaida 231
3.1. Organoen neurriak eta itxura 231
3.2. Ur-laginak 235
3.3. Konposatuen metaketa arrainen organo desberdinetan 236
3.3.1. Analitoen metaketa behazunean 236
3.3.2. Analitoen metaketa gibelean 238
3.3.3. Analitoen metaketa plasman 239
3.3.4. Analitoen metaketa burmuinean eta muskuluan 240
3.4. Konposatuen metaketa egunetan zehar 241
4. Ondorioak 242
5. Erreferentziak 244

9-Conclusions

Conclusions 251

Supplementary material / Eranskinak III

Abbreviations / Laburdurak

0-9

2,4´-DDD: 2,4-bis(p-chlorophenyl)ethane / 2,4-bis(p-klorofenil)etanoa.

2,4´-DDT: 1-chloro-2-[2,2,2-trichloro-1-(4-chlorophenyl)ethyl]benzene / 1-kloro-2-[2,2,2-trikloro-1-(4-klorofenil)etil]bentzenoa.

4,4´-DDD: 2,2-bis(p-chlorophenyl)ethane / 2,2-bis(p-klorofenil)etanoa.

4,4´-DDT: 1,1′-(2,2,2-trichloroethylidene)bis[4-chloro] / 1,1′-(2,2,2-trikloroetilideno)bis[4-kloro].

4*n*OP: 4-*n*-octylphenol / 4-*n*-oktilfenola.

4*t*OP: 4-*tert*-octylphenol / 4-*tert*-oktilfenola.

4-*NP-G*: 4-nonylphenol glucuronide / 4-nonilfenol glukuronidoa.

Symbols/ Sinboloak

α-HCH: α-hexachlorocyclohexane / α-hexakloroziklohexanoa.

β-HCH: β-hexachlorocyclohexane / β-hexakloroziklohexanoa.

γ-HCH: γ-hexachlorocyclohexane / γ-hexakloroziklohexanoa.

δ-HCH: δ-hexachlorocyclohexane / δ-hexakloroziklohexanoa.

$[^{2}H_{8}]$-4,4′-DDT: $[^{2}H_{8}]$-4,4′-1,1′-(2,2,2-trichloroethylidene)bis[4-chloro]) / $[^{2}H_{8}]$-4,4′-1,1′-(2,2,2-trikloroetilideno)bis[4-kloro]).

[$^2H_{16}$]-BPA: [$^2H_{16}$]-bisphenol-A / [$^2H_{16}$]-bisfenol-A.

[$^2H_4$]-DEHP: [$^2H_4$]-bis(2-ethylhexyl) phthalate / [$^2H_4$]-bis(2-etilhexil) ftalatoa.

[$^2H_3$]-E2: [$^2H_3$]-17β-estradiol / [$^2H_3$]-17β-estradiola.

[$^2H_{15}$]-MX: [$^2H_{15}$]-musk xylene / [$^2H_{15}$]-musk xilenoa.

[$^2H_4$]-NP: [$^2H_4$]-4*n*-nonylphenol / [$^2H_4$]-4*n*-nonilfenola

A

Ace: acetone / azetona.

ACN: acetronitrile / azetonitriloa.

AHTN: tonalide / tonalidea.

ANOVA: analysis of variance / bariantza-analisia.

APCI: atmospheric pressure chemical ionization / presio atmosferikoko ionizazio-kimikoa.

AP_1EOs: alkyl phenol monoetoxilates / alkilfenol monoetoxilatuak.

AP_nEOs: alkyl phenol polyetoxilates / alkilfenol polietoxilatuak.

APGC: atmospheric pressure gas cromatography / presio atmosferikoko gas-kromatografia.

APPI: atmospheric pressure photo ionisation / presio atmosferikoko fotoionizazioa.

APs: alkylphenols / alkilfenolak.

ASE: accelerated solvent extraction / disolbatzailearen bidezko erauzketa azeleratua.

B

BAF: bioaccumulation factor / bioakumulazio-faktorea.

BBP: butyl benzyl phthalate / butil bentzil ftalatoa.

BCF: bioconcentration factor / biokontzentrazio-faktorea.

Benzocaine: ethyl-4-aminobenzoate salt / etil-4-aminobentzoato gatza.

BPA: bisphenol-A / bisfenol-A.

BSA: N,O-bis (trymethylsilyl) acetamide / N,O-bis (trimetilsilil) azetamida.

BSTFA: N,O-bis(trimethylsilyl)trifluoroacetamide / N,O-bis(trimetilsilil)trifluoroazetamida.

C

C_{18}: octadecylsilane / oktadezilsilanoa.

CAS: chemical abstract service / konposatu kimikoen laburdura zerbitzua.

CCD: central composite design / diseinu konposatu zentrala.

CCL: contaminant candidate list / kutsatzaileen hautagai zerrenda.

CE: collision energy / talka-energia.

CF: concentration factor / kontzentrazio-faktorea.

CHL: cholesterol / kolesterola.

CI: chemical ionisation / ionizazio kimikoa.

CIS: cooled injection system / injekzio hotzeko sistema.

C_{TWA}: time-weighted average concentration / denboran zeharreko batazbesteko kontzentrazioa.

CRM: certified reference material / erreferentziazko material egiaztatua.

CV: Cell voltage / gelaxka-boltaia.

D

DAD: diode array detector / diodo ildaxka detektagailua.

DDE: dichloro diphenyldichloroethylene / dikloro difenyldikloroetilenoa.

DDD: dichloro diphenyldichloroethane / dikloro difenildikloroetanoa.

DDT: dichloro diphenyltrichloroehtane / dikloro difeniltrikloroetanoa.

DES: diethylbestrol / dietilbestrola.

DEHP: bis(2-ethylhexyl) phthalate / bis(2-etillhexil) ftalatoa.

DiDecP: diisodecyl phthalate / diisodezil ftalatoa.

DiNP: diisononyl phthalate / diisononil ftalatoa.

DMP: dimethyl phthalate / dimetil ftalatoa.

DOP: dioctyl phthalate / dioktil ftalatoa.

dSPE: dispersive solid phase extraction / fase solidoko erauzketa dispertsiboa.

DTP: ditridecyl phthalate / ditridezil ftalatoa.

E

E1: estrone / estrona.

E2: 17 β-estradiol / 17 β-estradiola.

E2-G: 17 β-estradiol glucuronide / 17 β-estradiol glukuronidoa.

E3: estriol /estriola.

ECs: emerging contaminants / konposatu emergenteak.

EDCs: endocrine disrupting compounds / disrupzio endokrinoko konposatuak.

EE2: 17 α-ethynilestradiol / 17 α-etinilestradiola.

EFSA: European Food Safety Authority/ Europako janariaren segurtasun agentzia.

EH: Basque Country / Euskal Herria.

EI: electron ionisation / elektroi ionizazioa.

ENVI: ENVI-CARB / ENVI-CARB.

EPA: United States environmental protecion agency/ Estatu Batuetako ingurumeneko babes agentzia.

ER: estrogen receptor / estrogeno-hartzailea.

ESI: electrospray ionisation / elektroesprai ionizazioa.

EtOAc: ethyl acetate / etil azetatoa.

EU: European Union / Europar Batasuna.

EQS: environmental quality standards / ingurumeneko kalitate-mugak.

F

FUSLE: focused ultrasound solid liquid extraction / ultrasoinu fokatu bidezko solido-likido erauzketa.

G

GC: gas-chromatography / gas-kromatografia.

GC-MS: gas chromatography–mass spectrometry / gas-kromatografia–masa-espektrometria.

GPC: gel permeation chromatography / gel permeazio kromatografia.

GPC-LC-DAD: gel permeation chromatography-liquid chromatography-diode array detector / gel permeazio kromatografia–likido-kromatografia diodo ildaxka detektagailua.

H

HAc: acetic acid / azido azetikoa.

HCHs: hexachlorocyclohexane / hexakloroziklohexanoak.

Hex: *n*-hexane / *n*-hexanoa.

HHCB: galaxolide / galaxolidea.

HVP: high volume production / bolumen handiko ekoizpena.

I

Isooctane: 2,2,4-trimethylpentane / 2,2,4-trimetilpentanoa.

K

K_{ow}: octanol water partition coefficient / oktanol/ur banaketa-koefizientea.

L

LC: liquid-chromatography / likido-kromatografia.

LD liquid-desorption / desortzio-likidoa.

LDPE low density polyethylene / dentsitate baxuko polietilenoa.

LC-MS/MS: liquid chromatography-tandem mass spectrometry / likido-kromatografia tandem masa-espektrometria.

LLE: liquid-liquid extraction / likido-likido erauzketa.

LODs: limits of detection / detekzio-muga.

LOQs: limits of quantification / kuantifikazio-muga.

LVI: large volume injection / bolumen handiko injekzioa.

LVI-PTV-GC-MS: large volume injection-programmed temperature vaporizing-gas chromatography-mass spectrometry / bolumen handiko injekzioa-tenperatura programatutako baporizatzailea-gas chromatografia-masa espektrometria.

M

MAE: microwave assisted extraction / mikrouhinen bidezko erauzketa.

MALDI: matrix-assisted laser desorption / matrizeak lagundutako laser desortzioa.

MBzP: monobenzyl phthalate / monobentzil ftalatoa.

MDLs: method detection limits / metodoaren detekzio-muga.

MEHP: mono-2-ethylhexyl ester / mono-2-etilhexilesterra.

MeOH: methanol / metanola.

Milli-Q: milli-Q water / milli-Q ura.

MOP: monooctyl phthalate / monooktil ftalatoa.

M-PES: membrane enclosed sorptive coating-polyethersulfone / mintzean gordetako geruza adsorbatzailea-polietersulfona.

MRM: multiple reaction monitoring / erreakzio anitzeko monitorizazioa.

MS: mass spectrometry / masa-espektrometria.

MSTFA: N-methyl-N-(trimethylsilyl) trifluoroacetamide / N-metil-N-(trimetilsilil) trifluoroazetamida.

MS/MS: tandem mass spectrometry / tandem masa-espektrometria.

MV: molecular volume / bolumen molekularra.

MW: molecular weight / pisu molekularra.

N

N_2: Nitrogen / nitrogenoa.

NaCl: sodium chloride / sodio kloruroa.

NP mix: nonylphenol mixture / nonilfenol nahasketa.

NPs: nonylphenols / nonilfenolak.

O

OCP: organochlorine pesticides / pestizida organokloratuak.

OPP: organophosphate pesticides / pestizida organofosfatatuak.

OPs: octylphenols / oktilfenolak.

P

PA: polyamide / poliamida.

PAc: polyacrilate / poliakrilatoa.

PAHs: polycyclic aromatic hydrocarbons / hidrokarburo polizikliko aromatikoak.

PCPs: personal care products / zaintza pertsonaleko produktuak.

PDMS: polydimethylsiloxane / polidimetilsiloxanoa.

PEG: polyethylenglycol / polietilenglikola.

PEM: phthalate ester metabolite / ftalato esterren metabolitoak.

PEs: phthalate esters / ftalato esterrak.

PES: polyethersulfone / polietersulfona.

PG: progesterone / progesterona.

PLE: pressurised liquid extraction / presiopeko likido-erauzketa.

POCIS: polar organic chemical integrative system / konposatu organiko polarren lagin-bilketa integrala.

POM: polyoxymethylene / polioximetilenoa.

POP: persistent organic pollutant / kutsatzaile organiko iraunkorra.

PPCPs: pharmaceutical and personal care products / produktu farmazeutikoak eta zaintza pertsonalekoak.

PSA: primary and secondary amine / amina primario eta sekundarioa.

PTFE: polytetrafluoroethylen / politetrafluoroetilenoa.

PTV: programmed temperature vaporizing / tenperatura programatutako baporizatzailea.

PVC: polyvinylchloride / polibinilkloruroa.

Pyr: pyridine / piridina.

Q

QuEChERs: quick easy cheap effective rugged safe / azkarra, erraza, merkea eraginkorra, sendoa eta segurua.

R

r^2: coefficient of determination / determinazio-koefizientea.

REACH: registration, evaluation and authorization of chemical substances / konposatu kimikoen izen ematea, ebaluazioa, baimena eta murrizketa.

RSD: relative standard deviation / desbiderazio estandar erlatiboa.

S

S/N: signal to noise ratio/ zarata/seinale-erlazioa

SBSE: stir bar sorptive extraction / hagatxo birakariaren bidezko erauzketa.

SIM: select ion monitoring / hautatutako ioi-monitorizazioa

SLE: solid liquid extraction / solido-likido erauzketa.

SPE: solid phase extraction / fase solidoko erauzketa.

SPME: solid phase microextraction / fase solidoko mikroerauzketa.

SPMD: semipermeable membrane device / mintz erdi-iragazkorrezko tresna.

T

TCA: α-2,4'-trichloroacetophenone / α-2,4'-trikloroazetofenona.

TCP: 3,5,6-trichloro-2-pyridinol / 3,5,6-trikloro-2-piridinola.

TD: thermal desorption / desortzio termikoa.

TDU: termal desorption unit / desortzio termikoko unitatea.

TMCS: trimethylchlorosilane / trimetilklorosilanoa.

TMS: trimethylsilyl / trimetilsilanoa.

TOC: total organic carbon / karbono organiko totala.

U

UCMR-3: 3rd unregulated contaminant monitoring rule / arautu gabeko 3. kutsatzaileen monitorizazio araua.

US: ultrasound / ultrasoinua.

USA: United States of America / Ameriketako Estatu Batuak.

USE: ultrasound extraction / ultrasoinuen bidezko erauzketa.

UV: ultraviolet / ultramorea.

W

WFD: water frame directive / uraren zuzentaraua.

WS: water solubility / ur disolbagarritasuna.

WWTP: waste water treatment plant / Hondakin-uren araztegia.

SARRERA

Ezin da ukatu kimika gure eguneroko bizitzaren zati garrantzitsu bat denik. Izan ere, "*Chemical Abstract Service*" (CAS) zerbitzuaren arabera, 110 milioi konposatu kimiko baino gehiago zerrendatu dira gaur egunerarte [1] eta horietatik 100.000 erabiltzen dira gaur egun [2, 3]. Nahiz eta konposatu ezorganiko batzuk ezinbestekoak izan gizakiaren hainbat eginkizunetarako, gaur egun ezagutzen diren konposatu kimiko gehienak konposatu organikoak dira, guztien % 90 inguru. Horrez gain, egunero 15.000 konposatu berri sortzen dira eta horietako gehienak konposatu organikoak dira. Hala ere, konposatu berriak sintetizatzen diren heinean, beste batzuen erabilera debekatu egiten da, gizakiengan zein ingurumenean sortzen dituzten kalteengatik. Aipatzekoa da Europar Batasuneko (*European Union*, EU) biztanleriari ingurumeneko arazoei buruz galdetu zitzaienean, % 47k adierazi zuela beren kezkarik nagusiena uraren kutsadura zela [4]. Kezka hori ikusirik, konposatu kimikoen presentzia inguruan gero eta erakunde gehiagok aztertzen dute, eta hainbat araudi indarrean daude ingurumenaren kalitatea ahalik eta hobekien mantentzeko.

1. Lehentasunezko konposatuak eta emergenteak

Uraren kutsadurak sortzen duen kezka ikusita, arau, legedi eta zuzentarau desberdinak jarri dira indarrean, ingurumeneko uraren kalitatea bermatzeko helburuarekin. Europa mailan, araudirik garrantzitsuena Uraren Zuzentaraua (*Water Frame Directive*, WFD) da. Mundu mailan, WFDaren parekoa den beste zuzentaraua, Ameriketako Estatu Batuek (*United State of America*, USA), Ingurumeneko Agentziak (*Environmental Protection Agency*, EPA) bermatzen duena da. WFDa 2000. urteaz geroztik indarrean dago Europako herrialde guztietan, eta hainbat berrikusketa jasan ditu konposatu berriak, eta horiek ingurumenean egon daitezkeen kontzentrazio maximoak finkatzeko. Helburu nagusia, ingurumeneko ur guztiak (gainazalekoak, lur azpikoak, trantsiziokoak eta kontinentalak) kalitate egokian mantentzea da. Horrenbestez, urek zuzentarauak ezarritako ingurumeneko kalitate-mugak (*Environmetal Quality Standards*, EQS) betetzen dituztenean, kalitate egokia lortu dutela baiezta daiteke. EQS balioak 2008. urteko berrikusketan gehitu ziren [5], uretarako, biotarako eta sedimentuetarako kontzentrazio-mailak finkatuz.

Aipatutako bi zuzentarau horiek konposatu kimiko desberdinek ingurumenean duten presentzia arautzea dute helburu (ikus **1.1 taula**). Konposatuen kontzentrazio-maila EQS gainetik dagoenean eta posiblea den kasuetan, konposatu horien isuria eten egin behar da. Ezinezkoa balitz, gutxienez inolako eraginik sortzen ez duten mailetara jaitsi behar dira (EQS balioen azpitik). Arautuko konposatu horiek lehentasunezko konposatuak dira, ingurumenean duten kalte ezagunagatik. WFDk, 2000. urtean, 33 substantzia sailkatu zituen multzo horretan (2000/60/EC eranskinean) [6], eta azkeneko berrikusketaren ondoren (2013. urtean, 2013/39/EC), beste 12 konposatu gehitu zituen zerrenda horretara. Horrela, gaur egun, 45 konposatu sailkatzen dira lehentasunezko konposatu modura [7] (ikus **1.1 taula**). EPAko zuzentarauak, aldiz, uraren programa erregulatzailearen (*Water Regulatory Program*) barnean, 126 konposatu sailkatu ditu lehentasunezko konposatu bezala [8]. Multzo horretan (ikus **1.1 taula**) zenbait metal, pestizida, ftalato ester (*Phthalate Esters*, PE), hidrokarburo poliziklikoaromatiko (*Polycyclic Aromatic Hydrocarbons*, PAH), alkilfenol (*Alkil Phenols*, AP) eta dioxina aurki daitezke, beste familia batzuen artean.

Lehentasunezko konposatuez gain, badira aipaturiko zuzentarauetan lehentasunezko moduan sailkatzen ez diren beste hainbat konposatu; konposatu emergenteak alegia. Konposatu horiek gizakiarengan zein ingurumenean kaltea eragin dezaketelako susmoa dago. Gainera, konposatu asko eta asko ingurumenean maiz aurkitzen diren konposatuak dira. Informazio nahikorik ez dago egun lehentasunezko kutsatzaile moduan sailkatzeko, baina monitorizazio-programetan sartzea gomendatzen da hurrengo azterketa batean lehentasunezko multzoan sartu behar diren ala ez erabakitzeko. Talde horren barnean, zaintza pertsonaleko produktuak (*Personal Care Products*, PCPs) eta hormonak bezalako produktu farmazeutikoak daude (ikus **1.1 taula**) WFD [9] eta EPA [10] zuzentarauetan. EPAk bi multzotan sailkatzen ditu konposatu emergenteak. Alde batetik, edateko uraren kalitatea bermatzeko, kutsatzaileen hautagaien zerrenda (C*ontaminant Candidate List*, CCL) kaleratzen du 5 urtean behin. Azken eguneratzean, 116 konposatu gehitu ziren CCL-3 zerrendara. Beste alde batetik, EPAk arautu gabeko kutsatzaileen monitorizazioaren 3. araua (*3rd Unregulated Contaminants Monitoring Rule*, UCMR-3) plazaratu zuen. Zerrenda horren bidez,

EPAk etorkizunean lehentasunezko moduan sar daitezkeen 30 konposaturen monitorizazioa egitea du helburu eta 5 urtez behin berritzen da. **1.1 taulan**, EPAk emergente moduan sailkatu dituen CCL-3 eta UCMR-3 arauetako konposatuak ikus daitezke.

Konposatu emergenteen multzoan egon beharreko konposatuak finkatzeko, Europako eta Ipar Ameriketako zientzialariek eta erakundeek lanean dihardute 2005. urteaz geroztik NORMAN izeneko proiektuan. NORMAN proiektuan ikertzen duten lan-taldeen helburua, konposatu emergenteak neurtzeko metodoak bateratzea eta horien monitorizazioari buruzko arauak ezartzea da. WFDko eta EPAko zuzentarauek kontuan hartu ez dituzten hainbat konposatu, kutsatzaile emergenteen taldean sartzea proposatu dute NORMANeko kideek (ikus **1.1 taula**). Horietatik aipagarrienak musketa fragantziak, surfaktanteak, produktu farmazeutikoak, hormonak, pestizida polarrak eta biozidak dira. Guzti horiek gizakien eta animalien sistema endokrinoan eragiten dituzten aldaketak direla eta [11], konposatu disruptore endokrino (*Endocrine Disrupting Compound*, EDC) bezala ezagutzen dira.

1.1 taula: *WFD eta EPA zuzentarauetan eta NORMAN lan-taldean lehentasunezko eta emergente moduan sailkatu diren konposatu batzuk.*

Familia	Analitoa	WFD	EPA	NORMAN	EDC
Musketa fragantziak	Tonalidea			X	X
	Galaxolidea			X	X
BPA	Bisfenol-A	X[*]	X[**]	X	X[1]
Estrogenoak	17 β-estradiola	X[E**]	X[E]	X	X
	17 α-etinilestradiola	X[E**]	X[E]	X	X
	Dietilstrilbestrola			X	X
APak	Nonilfenol-nahasketa	X[P]	X[***]		X[2]
	4-*tert*-oktilfenola	X[P]			X[2]
	4-*n*-oktilfenola	X[P]			X[3]
PEak	Bis-(2-etilhexil) ftalatoa	X[P]	X[P]		X[1]
	Butilbentzil ftalatoa		X[P]	X	X[1]
	Dioktil ftalatoa		X[P]	X	X[3]
Pestizidak	Hexakloroziklohexano isomeroak	X[P]	X[P]		X[1]
	Diklorodifeniltrikloroetano eta diklorodifenildikloroetano isomeroak	X[P]	X[P]		X[1]
	Klorfirifosa	X[P]			X
	Klorfenbinfosa	X[P]			X

[p] lehentasunezko konposatuak; [e] konposatu emergenteak.
* lehentasunezko moduan sailkatua izateko hautatutako substantzia 2008/105/EC zuzentaraueko 3. Eranskinean.
** 2015/495 behaketa zerrendan aipatuak, hurrengo berrikusketan lehentasunezko konposatu moduan sailkatzen diren edo ez erabakitzeko.
*** CCL-3 araudian sartzeko proposatua, baina azkenean ez hautatua.
[1, 2, 3] Europar Batasunak EDCak sailkatu dituen multzoa [12].

1.1. Konposatu disruptore endokrinoak

EDCak gorputzaren sistema endokrinoan aldaketak sortzen dituzten substantzia exogenoak edo horien nahasteak dira. Konposatu horiek organismo osasuntsuetan edo organismo horien ondorengoetan kalteak sor ditzakete [13]. Disrupzio endokrinoa elikaduran edo ingurumenean dauden kutsatzaileek sor dezakete. EUk 3 multzo nagusitan sailkatu ditu EDCek duten disrupzio-mailaren arabera edo ingurumenean dauden kopuruaren arabera [12] (ikus **1.1 taula**). Konposatuak talde bakoitzean sailkatzeko irizpideak honako hauek dira:

- 1. taldea: disrupzio endokrinoa eragiten dutelako susmo handia duten konposatuak edo ingurumenean maila altuan dauden konposatuak.
- 2. taldea: disrupzio endokrinoa eragiteko aukera handia duten konposatuak edo ingurumenean maila ertainean dauden konposatuak.
- 3. taldea: disrupzio endokrinoa eragiten ote duten garbi ez dagoen konposatuak edo ingurumenean maila baxuan dauden konposatuak.

Araudi horretan, EDCak izateko susmopean dauden 564 konposatu aztertu dituzte eta 66 konposatu 1. multzoan sailkatu dira. 1. multzoko konposatuetatik, gizakiak 60 konposatutara esposatuta egoteko aukera handia du. 2. taldean beste 52 konposatu sailkatu dira eta azkenik, 3. multzoa beste 118 konposatuk osatzen dute. Gainontzeko konposatuek ez dute EDC moduan sailkatuak izateko ebidentzia nahikorik erakutsi.

EDCek gorputzean kalteak eragiteko bi mekanismo nagusi dituzte. Alde batetik, gorputzean era naturalean dauden hormonen jokaera imita dezakete eta, beste aldetik, hormonen produkzioan, metabolismoan edo eliminazioan parte har dezakete [13, 14]. **1.1 irudian** ikus daitekeen moduan, egoera normal batean, hormona hormona-hartzaileari lotzen zaio. Haatik, EDC bat jatorrizko hormonarekin lehian dagoenean, EDCa hormona-hartzaileari lotu dakioke hormonaren erantzun normala aldatuz.



1.1 irudia: *Disruptore endokrinoak eta hormona naturalak estrogeno-hartzailearekin lotzen diren adibidea.*

Erantzun desberdin horien ondorioz, hainbat izan dira uretan bizi diren espezietan aurkitutako arazoak: malformazioak [15], ugalketa-arazoak [16, 17], espezieen tamainaren aldaketa [18] edo intersexualitatea [18-20], adibidez. Arazo horiek, bai ingurumenean jasotako arrainetan bai laborategiko arrainetan aurkitu izan dira, arrainek pairatu duten esposizio-maila oso baxua izanda ere.

Intersexualitatea edo "ovotestis"a, garapen-maila desberdinean egon daitezkeen obozitoak barrabilen ehunaren barruan daudenean gertatzen den fenomenoa da [19, 21, 22]. Ohikoa ez den egoera horren ondorioz, arrainetan ugalketa arazoak ikusi dira eta, kasurik larrienetan, populazio osoa desagertzeko zorian egon da [23, 24]. Ezaguna da intersexualitatea sortzen duen faktorerik garrantzitsuenetako bat EDCekiko esposizioa dela [18, 19, 21, 25], bai larba garaian baita heldutasun sexuala lortu dutenean ere [26].

EDC gehienek jatorri sintetikoa dute. Edonola ere, badaude jatorri naturala duten EDCak, hormona naturalak eta sojatik eratorritako fitoestrogenoak, adibidez [27-30]. Konposatu sintetikoen artean, PEak, bisfenol-A (*Bisphenol-A*, BPA), musketa fragantziak, APak, hormona sintetikoak eta pestizidak aipa daitezke, besteak beste (ikus **1.1 taula**). Konposatu horietatik gehienak, lehenago aipatutako

zuzentarauetan aipatzen dira espezifikoki sortzen dituzten kalteengatik. Hala ere, dietilestrilbestrola (*Diethylestrilbestrol*, DES) eta musketa fragantziak bezalako konposatuak, nahiz eta EDC moduan sailkatu diren, NORMAN lan-taldean baino ez dira aipatzen. Jarraian, aipatutako familien deskribapen sakonagoa egingo da.

1.1.1. Musketa fragantziak

Musketa fragantziak, duten usain bereziagatik antzinatik erabili izan diren konposatuak dira. Jatorrian, orein (*Moschus moschiferus*) arrek ipurdi aldean duten guruin batetik lortzen ziren, lortutako konposatua muskona izanik. XIX. mendera arte, musketa fragantzia naturalak bakarrik erabiltzen ziren, baina arrazoi ekonomikoak eta etikoak direla medio, musketak sintetizatzen hasi ziren. Orein bakoitzaren jariakinen % 0,5-2 baino ez zen erabilgarria lurringintzan eta 40 orein behar ziren lurrin pote bat egiteko. Horrela, muskona produktu natural garestiena da, 30.000-50.000 $/Kg prezioa duela [31]. Gaur egun, musketa sintetikoen erabilera guztiz hedatuta dago munduan zehar. Europa mailan, 1.000-5.000 tona/urteko ekoizten dira [32, 33] eta EPAk bolumen handiko ekoizpen-produktu (*High Volume Production*, HVP) bezala sailkatu ditu, urtean 1 milioi libra edo gehiago ekoizten direlako [34, 35]. Musketa sintetikoen artean, musketa poliziklikoak dira erabilienak, galaxolidea® (HHCB) eta tonalidea® (AHTN) batez ere [35, 36]. Musketa poliziklikoen ezaugarririk nagusienak usaina finkatzeko duten gaitasuna eta usaina bera dira. Ondorioz, garbiketarako xaboietan, xanpuetan edo perfumeetan erabiltzen dira gehigarri gisa [32, 33, 35, 37, 38]. Une honetan, musketa fragantziak ez daude WFD edo EPA erakundeetan araututa, baina etorkizunean monitorizazio-programetan sartzeko aukera asko dituzte erabilera handiagatik, baita sortzen dituzten kalteengatik ere [35, 38]. Musketa fragantziek aktibitate estrogenikoa erakusten dute [32, 35, 39], organismo akuatikoetan metatzeko joera dute [40-42] eta erresistentzia multixenobiotikoen inhibitzaileak dira [31, 42].

1.1.2. Bisfenol-A

Bisfenol konposatuen artean, 7 dira aurki daitezkeen analogoak (ikus **1.2 irudia**). Horietatik garrantzitsuena BPA dela esan daiteke, gehien erabiltzen den analogoa baita [43]. Orokorrean, bibliografian aurkitutako lan gehienetan BPA bakarrik determinatzen dute [2, 29, 44-46]. BPAren gehiengoa fenolen, poliakrilatoen, poliesterren eta epoxi-erretxinen polimerizazioan erabiltzen da eta gutxiengoa gehigarri moduan [43, 47-49]. Asko dira BPA eduki dezaketen produktuak: jostailuak, tresneria elektronikoa, medikuntzan erabilitako materiala eta jakien eta edarien ontziak. Ontzi horiek BPA edukitzeak sortzen du kezkarik handiena gizakion artean; azken finean, jakien eta edarien bidez, BPA gorputzean barneratu eta kalteak sor baititzake. Europako janariaren segurtasunerako agentziak, (*European Food Safety Authority*, EFSA-k) gizakiak egunero barneratu dezakeen BPA-muga berria ezarri zuen 2015. urtean. Muga hori, 50 μg/gp (gorputzaren pisua) izatetik 4 μg/gp izatera pasatu zen. Egindako ikerketen arabera, gizakiak muga berri horretatik behera barneratzen du BPA egunero, osasunari inolako kalterik ekarri gabe [43]. Zenbait ikerlarik adierazi dute BPA gizakiengan minbizia, ugalketa-sisteman aldaketak eta aldaketa neuronalak sortzeko gai dela [50-52]. Uretan bizi diren arrainentzat dosi toxikoa 1-10 mg/L-koa zela aipatu zuten Nikfar eta lankideek [53]. BPAren barneratze-maila hori murrizteko asmoz, zenbait neurri hartu dira herrialde desberdinetan. USAko zenbait estatutan (New Yorken eta Minesotan, adibidez), BPA duten produktuak guztiz debekatu dira eta Kanadan, Taiwanen eta EUan haurren elikadura botiletan zein ontzietan debekatuta dago [47]. Une honetan, BPA da araututa dagoen bisfenolaren analogo bakarra, baina gainontzeko 6 analogoak, antzeko propietate fisiko-kimikoak izanik, BPAren ordezkariak izateko hautagaiak dira. Tamalez, antzekotasun hori dela eta, analogo horiek efektu toxiko altua dutela eta disruptore endokrino moduan joka dezaketela baieztatu da [48, 54-56].

Bisfenol-A

Bisfenol-S

Bisfenol-F

Bisfenol-Z

Bisfenol-AF

Bisfenol-P

Bisfenol-AP

1.2 irudia: *Bisfenolaren 7 analogoen egitura kimikoa.*

1.1.3. Pestizidak

Pestizidak, urtetan zehar, intsektuen kontrolerako erabili izan diren konposatu kimikoak dira. Erabilera nagusiena nekazaritzan izan den arren, neurri txikiago batean etxeetako landareak zaintzeko ere erabili izan dira. Pestizidak bi talde nagusitan bana daitezke beren egitura kimikoaren arabera: pestizida organokloratuak (*Organochlorine Pesticides*, OCPak) eta pestizida organofosfatatuak (*Organophospate Pesticides*, OPPak). OCPak gehien erabili diren pestizidak izan dira, batez ere 1940-1980 urte bitartetan [57, 58]. OCPrik ezagunenak diklorodifeniltrikloroetanoak (*Dichloro Diphenyl Trichloroehtane*, DDT), diklorodifenildikloroetanoak (*Dichloro Diphenyl Dichloroethane*, DDD), diklorodifenildikloroetilenoak (*Dichloro Diphenyl Dichloroethylene,* DDE*)* hexakloroziklohexanoak (*Hexochlorocyclohexane*, HCH) eta beraien isomero guztiak dira. Konposatu horiek hainbat kalte sortu dituztela frogatu dute hainbat ikerlarik [57, 59, 60]. Horietatik aipagarrienak jaiotza goiztiarra, abortuak, bularreko minbizia eta nerbio-sisteman eragindako kalteak dira. Arazo guzti horiek direla eta, egun herrialde gehienetan beraien erabilera debekatuta dago. Debeku horren atzean, oso garrantzitsua izan zen USAn egondako mugimendu ekologista. 1962. urtean, Rachel Carson idazleak eta itsas-biologo estatu batuarrak “udaberri isila” izeneko liburua kaleratu zuen. Liburu horrek mugimendu soziala sortu zuen eta ondorioz, EPA erakundearen sorrera bultzatu zen. Erakunde horrek DDTa debekatu zuen salbuespen gutxi batzuekin. Zenbait herrialdetan, erabilera legezkoa da malaria eta tifusa garraiatzen dituzten eltxoak hiltzeko. Beraien propietate fisiko-kimikoak direla eta, ingurumenean oso iraunkorrak dira degradaziorik jasan gabe [57-59, 61]. Luo eta lankideen arabera [61], 22 egun-30 urteko erdibizitza dute ingurumenean eta gizakiongan 6-10 urtekoa. Degradazio baxu horren ondorioz, ingurumen-matrize desberdinetan antzeman daitezke debekatutako pestizidak. Adibide moduan, populazioaren % 95ak DDEa gorputzaren barnean duela estimatu da [57]. OCPak EDC moduan sailkatu dira [59] sistema endokrinoan sortzen dituzten aldaketengatik. Horretaz gain, toxikoak eta minbiziaren eta diabetesaren eragileak dira, abortuak eragiteko gai dira eta espermaren kalitatearen jaitsierarekin erlazionatu dituzte [57, 59, 60]. Koureas eta lankideek alzheimerrarekin eta dementziarekin ere erlazionatu dituzte OCPak [57].

OPPak, ordea, efizientzia altuko pestizidak dira, eta ingurunean ez dira hain iraunkorrak. Hori dela eta, oraindik zenbait pestizidaren erabilera indarrean dago [62], nahiz eta WFDk klorfirifosa (*Cholpyrifos*) eta klorfenbinfosa (*Chlorfenvinphos*) adibidez, lehentasunezko konposatu bezala definitu dituen.

Euskal Herri (EH) mailan, Bizkaian batez ere, HCH isomeroen gaia oso ezaguna da, bertako bi enpresak HCH isomeroak ekoizten baitzituzten 1947-1987 eta 1950-1982 urteen bitartean. HCH isomeroak 5 diren arren, pestizida moduan aktiboa den bakarra γ-HCH isomeroa da, lindano izenaz ezaguna dena. Sintesian, isomero guztiak ekoizten dira. Erabilgarriak ez direnak baztertu egiten dira egun, baina lehen hondakinetara botatzen ziren. Sintesian aktiboa den lindanoa ~ 9:1 erlazioan dago; beraz, ekoizten diren 10 tonetatik bakarra da erabilgarria, gainontzekoa hondakina izanik. Hasiera batean, aipatutako bi enpresek sintetizaturiko HCH nahaste osoa saltzen zuten, baina urte batzuk geroago, isomeroen bereizketa egiten hasi ziren aktiboa zena salduz, eta ondorioz, hondakinak pilatuz. Bizkaian bakarrik 80.000 tona inguru ekoiztu zirela uste da. Ekoiztutako α-HCH eta β-HCH isomeroak lindanoa bera baino toxikoagoak dira. Garai hartan, hondakinak lurrarekin nahasten ziren eta Bizkaiko leku desberdinetan sakabanatzen ziren, ingurumeneko arazo larriak sortaraziz. Gaur egun ere, oso zaila da hondakinak behar bezala tratatzea arazo ekonomikoak direla eta. Euskal Erkidegoko gobernuak hondakinak bilatu eta segurtasun-zelda desberdinetan (Argalario eta Loiu) pilatzea proposatu zuen. Horrenbestez, 2002. urteaz geroztik topatu diren HCH hondakinak bertan daude pilatuta eta bertan ingurumeneko hainbat kontrol egiten dira [63].

1.1.4. Estrogenoak

Sexu-estrogeno esteroideak pisu molekular baxuko molekula lipofilikoak dira eta hormonalki aktiboak dira [64, 65]. Esteroide guztiak kolesterol (*cholesterol*, CHL) molekularen eratorriak dira. Beraien eginkizun nagusienak sexu-bereizketa egitea, ugaztunen ziklo menstruala kontrolatzea eta emeen ugaltze-aparatua eta hainbat organoren funtzionamendu normala ahalbidetzea dira. Horretaz gain, koipearen, azukrearen eta proteinen metabolismoan paper garrantzitsua dute, baita odolaren koagulazioan ere [64, 66]. Hormonak bi multzo nagusitan banatzen dira. Alde batetik, hormona naturalak daude. Talde horretako estrogenorik garrantzitsuenak estrona (E1), 17 β-estradiola (E2) eta estriola (E3) dira. Beste alde batetik, hormona sintetikoak edo hormona exogenoak daude. Multzo horretan ezagunena 17 α-etinilestradiola (EE2) da [64-67]. Hormona sintetikoak gizakion eta animalien beharretarako erabiltzen dira batik-bat, eta gaur egun sendagairik erabilienak dira. Gizakion kasuan, EE2 emakumeen hilerokoa kontrolatzeko piluletan erabiltzen da. Pilula bakoitzak 30-50 μg EE2 ditu eta gainontzekoa progesterona (PG) da. Horretaz gain, menopausia-sintomak arintzeko eta prostatako minbizia sendatzeko ere erabiltzen da [67]. Halarik ere, hormonen gehiegizko erabilerak bularretako minbizia sor dezakeela adierazi dute hainbat zientzialarik [67-69]. Albaitaritzan, hormona sintetikoen erabilera legala da gaur egun edozein gaixotasun sendatzeko eta kontrolatzeko. Hazkuntza azkartzeko helburuarekin, ordea, ezin da erabili. [64]. Helburu horrekin hormonak erabili nahi izanez gero, merkatu beltzera jo daiteke. DESa da, adibidez, merkatu beltzean lor daitekeen hormona sintetiko ohikoena. DESa esteroidea ez den sexu-hormona sintetikoa da. Hormona esteroideen antza handia daukanez eta gorputzean hormona sintetikoen antzeko eraginak sor ditzakeenez, hormona sintetikoen multzoan sailka daiteke [64, 66]. Akuikulturan, aldiz, sexu bakarreko arrainak, emeak normalean, lortzeko erabiltzen dira hormona sintetikoak [64, 66, 67, 70, 71]. Hormona naturalek zein sintetikoek dituzten erabilera ugarien ondorioz, etengabe isurtzen dira ingurumeneko uretara, normalean araztegien bidez. Hormonak dauden uretan bizi diren arrainek intersexualitatea garatzen dutela adierazi dute hainbat ikerlarik [72, 73]. Azken finean, akuikulturan gertatzen den fenomenoaren antzekoa da baina, kasu honetan, kutsadurak eragindakoa. Steele eta lankideen

[74] esanetan, araztegien irteeran 1-50 ng/L hormona nahikoa dira arrainek intersexualitatea gara dezaten. Hormonek duten egitura kimikoaren arabera, aktibitate estrogeniko desberdina dute. Nahiz eta kimikoki oso antzekoak izan, E2 molekula, 17 α-estradiol (ikus **1.3 irudia**) baino 10 aldiz aktiboagoa da estrogeno-hartzaileen (*Estrogen Receptor*, ER) aldean [64]. Hormona naturalen aktibitate estrogenikoak hurrengo hurrenkera dauka: E2 > E1 >> E3 > 17α-E2 [66, 75].

17-α-E2 17- β-E2

1.3.irudia: *α-E2 eta β-E2 molekulen egitura kimikoa.*

1.1.5. Ftalato esterrak

PEak edo ftalato esterrak 1920. urtetik aurrera sintetizatzen hasi ziren konposatu kimikoak dira [76, 77]. PEen sintesian bentzeno dikarboxilikoa alkohol desberdinekin esterifikatzen da PE desberdinak emanez. Erabili daitezkeen alkoholak linealak, aromatikoak edo adarkatuak izan daitezkeenez (ikus **1.4 irudia**), sortzen diren PEen kopurua oso handia da. Ftalatorik txikiena (pisu molekularra, *Molecular Weigth*, MW, 195) dimetil ftalatoa (*Dimethyl Phthalate*, DMP) da eta astunena (MW=531), aldiz, ditridezil ftalatoa (*Ditridecyl Phthalate*, DTP) [78]. Konposatu horiek dituzten propietate fisiko-kimiko desberdinen ondorioz, bai industrian bai eguneroko bizitzan ere asko erabiltzen dira. 1975. urtean, mundu mailan 1,8 milioi tona ekoiztu ziren eta 2010. urtean 6 milioi tona inguru. Ekoizpen horren laurdena bis(2-etilhexil) ftalatoak (*bis-2-ethylhexyl phthalate*, DEHP) hartu zuen [76, 79, 80]. PEak plastikoei malgutasuna, iraunkortasuna eta egonkortasuna emateko erabiltzen dira [77, 81, 82]. Erabilerarik aipagarrienak elektronika, polibinilkloruroaren (*Polyvinyl Chloride,* PVC) sintesia, eraikuntzako, jostailuen industriako, medikuntzako, garbiketako produktuetako eta zaintza pertsonaleko produktuak dira [77, 82]. Aipatu beharra dago PEak plastikoen sintesian gehigarri moduan erabiltzen direla eta, ondorioz, ez daudela plastikoei kimikoki lotuta [76, 78, 80, 81]. Arrazoi horregatik, oso erraz askatzen dira plastikoetatik ingurumenera edo janarien ontzietatik jakietara. Gizakiak janariaren bidez barneratzen du PEen kopururik handiena [77, 81]. Hala ere, PEen propietate fisiko-kimikoen ondorioz, ftalatorik arinenak (DMP) arnas-sistemaren bidez barneratzen dira, eta MWa igotzen doan heinean, barneratzea azalaren bidez ematen da. Azkenik, PE astunenen (MW ~390-tik gora) iturririk nagusiena elikadura da [77]. Propietate fisiko-kimiko desberdinek toxikologian ere eragina dute [78]. PEak minbizi eragileak direla ziurtatu dute zenbait ikerlarik [80, 83] eta EPAk [84] berak. Horrez gain, espermaren kopurua murriztu dezakete [82, 85] eta ugalketa arazoak sortu [77]. Ingurumenean eta bizidunengan duten kaltea ikusirik, hainbat erakundek PEen erabilera arautu dute. Garrantzitsuenak, umeen jostailuekin lotura duten arauak dira. DEHPa, dibutil ftalatoa (*Dibutyl Phthalate*, DBP) eta bentzil butil ftalatoa (*Benzyl Butyl Phthalate*, BBP) umeen jostailu guztietan debekaturik daude pisuaren % 0,1 pisutan baino kontzentrazio-maila altuagoetan, eta diisononil

ftalatoa (*Diisononyl Phthalate*, DiNP), dioktil ftalatoa (*dioctyl phthalate*, DOP) eta diisododezil ftalatoa (*Diisodecyl Phthalate*, DiDecP) ezin dira jostailuetan erabili % 0,1 baino maila kontzentratuagoetan, umeek jostailua ahoan sartzeko arriskua baitago [86]. **1.4 irudian**, ftalato desberdinen egiturak ikus daitezke.

a) Dioktil ftalatoa (DOP)

b) Butilbentzil ftalatoa (BBP)

c) Bis-2-etilhexil ftalatoa (DEHP)

1.4 irudia: **a)** *alkohol lineala*, **b)** *alkohol aromatikoa eta* **c)** *alkohol adarkatua duten PE molekulak.*

1.1.6. Alkil fenolak

APak, alkilfenol polietoxilatuen (*Alkylphenol Ethoxylates*, AP_nEOs-en) eta alkilfenol monoetoxilatuen (*Alkylphenol Monoethoxylates*, AP_1EOs-en) degradazio produktuak dira [87-89], araztegietan (*Wastewater Treatment Plant*, WWTP) jasaten dituzten degradazio aerobikoen ondorioz sortuak (ikus **1.5 irudia**). Sortzen diren degradazio produktuak jatorrizkoak baino egonkorragoak eta toxikoagoak dira [90]. APak, surfaktante ez-ionikoak dira eta detergenteetan, emultsionatzaile moduan, garbiketa produktuetan eta plastikoen sintesian erabiltzen dira [90, 91]. AP guztien % 55k industrian du jatorria. Gainontzeko % 30 garbiketa industrialean sortzen da eta, % 15 etxeetan erabiltzen diren garbiketarako produktuetan topa daitezke [90]. 500.000 tona/urteko ekoizten dira mundu-mailan eta guzti horren % 60k edo ingurumenean amaitzen du [90]. AP konposatuak nonilfenol (NP) eta oktilfenol (OP) linealez eta adarkatuez osatuta daude. Komertzialki eskuragarri dagoen NPa, *orto-* eta *para*-isomeroez osatutako nahastea da. Nahiz eta isomero guztien konposizioa guztiz ezezaguna izan ez, zenbait egilek gutxienez 100 isomero daudela uste dute, nahiz eta gehienez 66 identifikatu diren [92-95]. Isomero bakoitzak toxikotasun-maila desberdina du. Beraz, oso garrantzitsua da isomero guztiak identifikatzea [96-98]. *Orto*-isomeroek *para*-isomeroek baino iraunkortasun baxuagoa dute ingurumenean eta aktibitate estrogeniko txikiagoa [99]. Era berean, karbono atomo kopuruak eta adarkadura motak ere eragina dute; tertziarioek sekundarioek baino estrogeneizitate handiagoa dute, esaterako [97]. APek orokorrean, ingurumenean bizi diren organismoengan garapen toxikotasuna erakutsi dute [96] eta gainera eragin estrogenikoa dute; zehatzago esanda, estrogeno-hartzailearekiko antagonistak dira [97, 98]. NPa estrogeno ahul moduan definitu dute hainbat egilek, E2ak baino 10^{-6} estrogenitate gutxiago duelako [97, 98].

1.5 irudia: *APnEO konposatuek jasaten duten degradazio bidea.*

2. Konposatu kimikoak ingurumenean

Aipatu berri den moduan, milioika dira gaur egun erabiltzen diren konposatu kimikoak, eta ondorioz, milioika dira ingurumenean amaitzen duten konposatuak ere. Konposatu organikoen propietate fisiko-kimikoek, uretan eta biotan duten disolbagarritasun-maila (*Water Solubility*, WS) finkatzen dute, beste faktore batzuen artean. Orokorrean, oktanol-ur banaketa-koefizientea (*octanol/water Partition Coefficient*, K_{ow}) baxuena duten konposatu kimikoek, uretan disolbagarriagoak dira. Haatik, K_{ow} balioa handituz doan den heinean, biotan metatzeko aukera handitu egiten da.

2.1. Konposatu kimikoak ur-ingurumenean

Ura gizakion bizitzarako ezinbestekoa den arren, esfortzu txikia egiten da osasuntsu mantentzeko. Urteetan zehar gizakiaren jardueren ondorioz (industria, nekazaritza, abeltzaintza, etab.) sortutako hondakinek ingurumeneko uretara isurtzen ziren. Produktu kimikoen erabilera handitzen joan ahala, gero eta produktu gehiago isuri dira ingurumeneko uretara. Arazo horri aurre egin nahian, 19. mendearen amaieran araztegiak sortu ziren. Araztegien helburua ur industrialak edota etxeko urak jaso da eta, tratamendu fisikoak, kimikoak edo biologikoak aplikatu ostean, lortutako "ur garbia" ingurumenera bueltatzea da teorian, ingurumenerako kaltegarriak ez diren baldintzetan. Araztegi gehienek 2 tratamendu burutzen dituzte, nahiz eta 3. tratamendu bat ere egon daitekeen. Araztegien tratamenduaren eskema, **1.6 irudian** ikus daiteke.



1.6 irudia: *Araztegi batean urak jasaten dituen tratamenduen eskema ingurumenera bueltatu aurretik.*

Urek, araztegira heltzen direnean, aurretratamendu urrats batzuk jasaten dituzte lehen objektu handiak (enborrak edo plastikozko poltsak), objektu txikiak, uretan disolbatuta dauden areak edo antzeko tamaina duten partikulak eta gainazalean dauden koipeak kentzeko. Aurretratamendu urratsa oso garrantzitsua da hurrengo pausoetan erabiltzen den tresneriaren bizitza luzatzeko.

Aurretratamenduaren ostean, urek lehen mailako tratamendua jasaten dute ahalik eta materia organiko gehien dekantatzeko. Urari tratamendu kimiko desberdinak egiten zaizkio, koagulazio/malutapen prozesuak erabiliz. Tratamendu horien ondorioz, solidoak dekantatzen dira bi azpi-produktu sortuz; ur-laginak eta solidoak edo lohiak. Ondorengo urratsetan, urek eta lohiek tratamendu desberdinak jasango dituzte.

Ondoren, urek bigarren mailako tratamendua jasaten dute. Bertan, mikroorganismo desberdinak erabiliz, uretan disolbatuta dagoen materia organikoaren deskonposizioa eragiten da non, oxigenoaren laguntzaz, mikroorganismoek materia organikoa deskonposatzen duten, eta bestalde ura eta partikula solidoak bereizten diren. Kasu askotan, araztegien arazketa prozesua urrats horretan amaitzen da.

Tratamendu tertziarioaren helburua, ultramore (*Ultraviolet*, UV) izpiak edo klorazioa erabiliz, metal astunen eta hainbat konposatu kimikoren degradazioa egitea da. Gero eta gehiago dira tratamendu hori burutzen duten araztegiak.

Aipatu berri den bezala, araztegietan hainbat prozesu fisiko-kimiko egiten dira urak ingurumenera bueltatu aurretik. Halaz guztiz, hainbat lanetan aipatu da araztegiak ez direla gai konposatu kimiko guztiak ezabatzeko [28, 46, 70, 100-103]. Araztegiak sortu ziren garaian, gaur egun ezagutzen diren hainbat konposatu organiko ez ziren ezagutzen eta ondorioz araztegietan egiten diren tratamenduak ez dira gai konposatu organiko guztiak arazteko, ez baitago tratamendu espezifikorik oraindik ere indarrean. Horrez gain, aipatu beharra dago araztegien irteerako urek konposatu organikoen aurrekontzentrazio gisa joka dezaketela.

Estuarioetako, erreketako edo lakuetako uretan aurki daitezkeen konposatu organikoen kontzentrazioak araztegien irteeren ondoan aurki daitezkeenak baino baxuagoak dira diluzio efektua dela eta. **1.2 taulan** munduan zehar jasotako ingurumeneko uretan aurkitu diren zenbait konposatu organikoren kontzentrazioak laburbildu dira. Oro har, estuarioko eta errekako uretan ng/L-ko mailan daude konposatu gehienak, NPak [101] eta PEak [104, 105] izan ezik, ng/mL mailan aurkitzen baitira. Hala ere, aipatutako kontzentrazio horiek araztegietako irteeretan neurtutakoak baino baxuagoak dira eta kasu askotan μg/L-ko mailakoak dira.

1.2 taula: *Ingurumeneko ur desberdinetan neurturiko EDC desberdinen kontzentrazioak mundu mailan.*

Analitoa	Matrizea	Herrialdea	Urtea	Kontzentrazioa (ng/L)	Ref
BPA	Araztegiko irteera	Espainia	ea	603-3.690	[100]
	Araztegiko irteera	EH	2011	12-2.615	[46]
	Errekako ura	Txina	2012	7-75	[106]
Musketa fragantziak	Araztegiko irteera	EH	2011	82-259	[103]
	Araztegiko irteera	USA	2009	87-3.817	[107]
	Estuarioa	EH	2012	< 32	[35]
E2/EE2	Araztegiko irteera	EH	2011	< 1-232	[46]
	Araztegiko irteera	Espainia	ea	< 0,05-33	[108]
	Errekako ura	Txina	ea	100	[101]
DES	Araztegiko irteera	EH	2011	< 1-3	[46]
	Errekako ura	Txina	ea	20	[101]
OPak	Araztegiko irteera	Espainia	ea	282-4.085	[100]
	Errekako ura	Txina	ea	150	[101]
NPak	Araztegiko irteera	EH	2011	2-18.896	[46]
	Araztegiko irteera	Espainia	ea	658-11.361	[100]
PEak	Araztegiko irteera	Hegoafrika	2010-2011	nd-60	[109]
	Errekako ura	Suedia	2012	170-6.800	[105]
DDTak	Araztegiko irteera	EH	2011	< 9-226	[46]
	Errekako ura	Espainia	ea	1-39	[100]
HCHak	Araztegiko irteera Errekako ura	Espainia	ea	190-212 3-125	[100]
OPPak	Araztegiko irteera	EH	2011	< 7-60	[46]
	Errekako ura	Espainia	2004-2006	10-71	[110]

Musketa fragantziak (HHCB eta AHTN), OPak (4*t*OP eta 4*n*OP), NPak (NP isomero-nahastea), PEak (BBP, DEHP eta DOP), DDTak (2,4'-DDD, 4,4'-DDD, 2,4'-DDT, 4,4'-DDT), HCHak (α-HCH, β-HCH, δ-HCH, γ-HCH), OPPak (klorfirifosa eta klorfenbinfosa). ea: ez aipatua, nd: ez aurkitua.

2.2. Konposatu kimikoak biota laginetan

Ingurumeneko uretan dauden konposatu kimikoen kontzentrazioa ezagutzea ingurumenean bizi diren espezie urtarren osasuna ezagutzeko ezinbestekoa da. Aipatu berri den moduan, konposatu organiko gehienak oso kontzentrazio baxuetan egoten dira ingurumenean, ng/L-ko mailan gehienetan. Kontzentrazioak toxikotasun-mailakoak baino baxuagoak diren bitartean, balio horiek ez lukete arriskurik suposatu beharko. Alabaina, etengabeko esposizioak arazoak ekar ditzake uretan bizi diren espezieetan [19, 111-114]. Arrainek konposatu toxikoak barneratzeko hurrengo 3 bide nagusi dituzte:

Elikadura

Elikaduraren bidez, konposatu kimikoak barneratzeko bi bide dituzte arrainek. Alde batetik, uretan disolbatuta dauden konposatuak bertan dauden elikagaiekin elkar daitezke eta, ondoren, arrainek barneratu. Bestetik, barneraketa arrain handiek kutsatuta dauden arrain txikiak jaten dituztenean gertatzen da. Azken fenomeno horri biomagnifikazioa deritzo eta kate trofikoan goian dauden espezieetan edo gizakiengan du garrantzi handiena. Behin arrainak konposatu kimikoak barneratu dituela, gorputzak liseritzen ditu. Gorputzak absorbatu ez dituen konposatuak gorotzen edo gernuaren bidez kanporatzen dira eta gainontzekoak gibelera garraiatzen dira absortzio prozesuarekin jarraitzeko. Bide horretatik jasotako konposatu kimikoak nahiko azkar heltzen dira organismora; horregatik, kalte larriak sor ditzake arrainetan.

Larruazala

Arraina uretan disolbatuta dauden konposatu kimikoekin kontaktuan dago etengabe. Nahiz eta konposatu kimikoak oso kontzentrazio-maila baxuetan egon (ng/L), denbora luzez egoten dira azalarekin kontaktuan eta konposatuek gorputzean barneratzeko aukera dute. Molekula polarrak eta txikiak (< 600 Dalton) azaleko poroen bidez barneratzen dira. Haatik, molekula handiagoak (> 600 Dalton) eta hidrofobikoak gune lipidikoen bidez garraiatzen dira mintza zeharkatzeko. Behin konposatuek arrainaren azala zeharkatu ondoren, dermisean

dauden odol-hodietara iristen dira eta konposatuen propietate fisiko-kimikoen arabera, gorputz osoan zehar garraiatzen dira edo muskuluan metatzen dira. Uretan disolbagarritasun altuena duten konposatuak, odolean disolbatu eta garraiatuko dira, eta uretan disolbagarritasun baxua dutenak, aldiz, hau da, lipidoetan metatzeko joera dutenak, muskuluan metatuko dira. Arrainak badu gorputz patogenoei eta estres kimiko, biologiko eta fisikoari aurre egiteko defentsa mekanismo bat. Defentsa mekanismo hori, arrainak etengabe sortzen duen muki jariakina da [115-117]. Aipatutako patogenoen artean konposatu kimikoak daude. Hala ere, ezinezkoa da muki jariakinaren eraginkortasuna % 100koa izatea, eta denboraren bortxaz hainbat konposatuk metatzea lortzen dute.

Arnasketa

Arrainak zakatzak erabiltzen ditu uretan dagoen oxigenoa eta karbono dioxidoaren arteko elkartrukea egiteko. Arrainaren odolak bihotzetik zakatzetarako bidea egiten du, bertan oxigenatzen da eta gainontzeko organoetara ponpatzen da oxigenoa garraiatzeko. Odolak, oxigenoaz gain, zakatzetatik sartzen diren konposatu kimikoak ere garraiatzen ditu. Era horretan, konposatuak gorputz osoan zehar garraiatzen dira eta organoetan metatzeko aukera dute.

Arnasketa bidearen bitartez konposatuak metatzeko joera sakonago aztertuko da, kaltetutako organoen funtzioa azalduz. **1.7 irudian** EDCen metaketan garrantzia duten arrainen zenbait atal ikus daitezke.



1.7 irudia: *EDCen metaketa arrainetan aztertzeko garrantzitsuak diren zenbait atal*.

Odola

Arrainek odol-sistema itxia dute. Bihotzak ponpatzen duen odola oxigenatzeko zakatzetara joaten da lehenbizi eta ondoren gorputz osotik zehar garraiatzen da. Zakatzen bidez barneratutako konposatu organikoek odola erabiltzen dute garraiobide moduan. **1.3 taulan** ikus daitekeen moduan, konposatu organikoek ez dute odolean metatzeko joera handirik erakusten eta ng/mL-ko maila oso baxuetan antzeman [118, 119] dira; zenbait kasutan, uretan dauden kontzentrazio-maila berdinean.

Gibela

Konposatu kimikoak odolaren bidez heltzen dira gibelera gorputzetik kanporatuak izan aurretik. Gibelak, konposatu arrotzak egonkorragoak eta polarragoak diren konposatuetara metabolizatzen ditu, behazunaren bidezko kanporatzea laguntzeko. Konposatuek bi erreakzio-mota jasan ditzakete gibelean. Lehenik eta behin, 1. fasea (*Phase I*) deritzon prozesuaren bidez, konposatu organiko batzuk (ez-polarrenak) eraldatu egiten dira polarragoak diren metabolitoetan [120, 121]. Orokorrean, metabolito berri horiek alkohol (-OH) edo azido (-COOH) talde bat daukate. Bigarren erreakzioari 2. fasea (*Phase II*) deritzo. Bertan, metabolito berri horien –OH edo –COOH taldeei glukuronido [44, 122, 123], glukosido [124] edo sulfato [44, 125] talde bat lotzen zaie, konposatu polarragoak lortuz; hartara, behazunaren bidez kanporatzeko errazagoak diren konposatuak bilakatuz. Konposatu polarragoak (eraldatu gabe –OH edo –COOH taldea daukatenek) ez dute 1. fasea pairatzen eta zuzenean 2. fasean transformatzen dira.

PE molekulek jasaten duten 1. fasearen adibidea **1.8 irudian** agertzen da laburbildurik. PE molekulak dituzten 2 ester taldeetatik, R talde bat erreakzioan askatu egiten da eta -COOH taldea aske geratzen da. 1. faseko erreakzioa jasan dezaketen molekulen artean PEak [120, 126, 127], klorfirifos [128-130] eta klorfenbinfos pestizidak eta HHCBa [33] daude. Transformazio horren ostean, konposatu horien metabolitoek 2. fasea pairatzen dute. BPAk, hormonak eta APak, zuzenean 2. fasera pasatzen dira, jadanik glukuronizatu, glukosidatu edo sulfatatu

daitezkeen –OH (edota –COOH) taldeak baitituzte. Legler eta lankideen arabera, adibidez, E2 hormonaren % 90 glukuronido moduan askatzen da [131]. Konposatu glukuronidoak ez dira estrogenikoki aktiboak [132, 133], baina, araztegietan dauden bakterioek konposatu glukuronidoak hidroliza ditzakete jatorrizko konposatuak bihurtuz.

Diester ftalatoa — Monoester ftalatoa (1. fasea) — Monoester glukuronidoa (2. fasea)

1.8 irudia: *PE molekulek jasaten duten 1.eta 2. faseko erreakzioaren eskema.*

Odolarekin gertatzen ez den bezala, konposatu kimikoek gibelean metatzeko joera dute (ikus **1.3 taula**) [29, 134-136]. Aipatu behar da, OPPen kasuan adibidez, sortzen diren metabolitoak jatorrizko pestizidak baino toxikoagoak direla [130]; beraz, oso garrantzitsua da gibelean sor ditzaketen ondorioak aurreikusteko metatzen diren konposatuak aztertzea.

Behazuna

Gibelean metabolizatutako konposatuak behazunera gorputzetik kanporatuak izateko helburuarekin heltzen dira [114, 122, 137]. Hori dela eta, behazuna da konposatu organikoak maila altuenean dauden ehuna eta beraz, metaketa-maila altuena duena. **1.3 taulan** ikus daitekeen moduan, konposatuak aurreko ehunetan baino kontzentrazio altuagoetan daude behazunean eta zenbait kasutan ng/μL-ko mailara hel daitezke. Adibide moduan, aipagarria da Ingalaterrako araztegi bateko irteeran arrantzatutako arrain baten behazunean neurtutako NP maila 12 ng/μL baino handiagoa zela [123]. Esan beharra dago elikagaiak digeritzeko erabiltzen den bakoitzean, behazun-xixkoa hustu egiten

dela. Hori dela eta, behazunean aurki daitezkeen kutsatzaileak esposaketa laburrekoak dira, Martinez-Gomez eta lankideen arabera ordu gutxi eta zenbait egun bitartekoak [114]. Arrazoi horregatik eta behazunak duen metaketa ahalmenagatik, ikerlari askok behazuna proposatzen dute biomonitorizazioetan neurtu beharreko ehun bezala [44, 114].

Muskulua

Azaletik barneratzen diren konposatuek epe luzean muskuluan metatzeko joera dute. Orokorrean, aztergai diren konposatu organikoak ng/mL maila baxuetan metatzen dira muskuluan (ikus **1.3 taula**). Egia da kontzentrazio horiek ingurumeneko uretan aurki daitezkeenak baino handiagoak direla. Horregatik, oso garrantzitsua da arrainaren muskuluan metatzen diren konposatuen kontzentrazioak ezagutzea, ez arrainean izan dezakeen toxikotasunagatik bakarrik, baita muskulua jatean gizakiengan sor daitezkeengatik arazoengatik ere.

Burmuina

Arrainen burmuinak lipidoen metabolismoaren, sexu-hormonen jariatzearen, hazkuntzaren, osmoregulazioaren eta garapen sexualaren portaera kontrolatzen du, besteak beste. Heldugabeko arrainetan, esteroideek burmuinean dagoen gonada pituitarioaren garapenean ezinbesteko garrantzia dutela uste da. Azken horrek, arrain heldu baten ugalketa-zikloa kontrolatuko du [138]. Beraz, burmuinean dauden EDCen kontzentrazioa jakitea ezinbestekoa da arrainaren garapenean arazorik egon daitekeen ala ez aurresateko.

1.3 taula*: Ingurumeneko ur desberdinetan jasotako arrainen atal desberdinetan neurtutako EDCen kontzentrazioak.*

Analitoa	Matrizea	Espeziea	Herrialdea	Ingurumena	Urtea	Kontzentrazioa	Ref
BPA	Behazuna	*Rutilus rutilus*	Ingalaterra	Araztegiko irteera	2007	763-1.951[a]	[123]
	Behazuna	*Parophrys vetulus*	USA	Estuarioa	2005	< 6-52[a]	[139]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Iran	Zingira	2010	2.150[b]	[134]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Txina	Lakua	2009	107[b]	[29]
	Odola	*Morone saxatilis*	USA	Lakua	2011	1-6[a]	[118]
	Muskulua	*Oreochromis niloticus niloticus*	Taiwan	Erreka	2010-2011	nd-12[c]	[47]
	Muskulua	*Cyprinus carpio*	Iran	Zingira	2010	1.580[b]	[134]
Musketa fragantziak	Gibela	*Salmo salar*	Frantzia	Estuarioa	2011	4-6[b]	[135]
	Muskulua	*Mullus surmuletus*	Mediterraneoa	Itsasoa	2013	1-9[b]	[140]
	Muskulua	*Liza aurata*	Portugal	Estuario	2013	4-12[b]	[141]
E2/EE2	Behazuna	*Rutilus rutilus*	Ingalaterra	Araztegiko irteera Erreka	2007	17-2.503[a] < 0,4-56[a]	[123]
	Behazuna	*Parophrys vetulus*	USA	Estuarioa	2005	< 6-310[a]	[139]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Txina	Lakua	2009	12-19[b]	[29]
	Odola	*Platichthys flesus*	Frantzia	Estuarioa	ea	< 0,2-14[b]	[119]
NPak	Behazuna	*Rutilus rutilus*	Ingalaterra	Araztegiko irteera Erreka	2007	5.531-12.678[a] < 60-2.453[a]	[123]
	Behazuna	*Cyprinus carpio*	Txina	Erreka	2011	950-4.648[c]	[44]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Iran	Zingira	2010	3.210[b]	[134]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Txina	Lakua	2009	68[b]	[29]
	Muskulua	*Mugil cephalus*	Taiwan	Erreka	2010-2011	34-232[c]	[47]
	Muskulua	*Cyprinus carpio*	Iran	Zingira	2010	1920[b]	[134]

1.3 taula: *Jarraipena. Ingurumeneko ur desberdinetan jasotako arrainen atal desberdinetan neurtutako EDCen kontzentrazioak.*

Analitoa	Matrizea	Espeziea	Herrialdea	Ingurumena	Urtea	Kontzentrazioa	Ref
OPak	Behazuna	*Cyprinus carpio*	Txina	Erreka	2011	15-39[c]	[44]
	Gibela	*Cyprinus carpio*	Txina	Lakua	2009	15[b]	[29]
	Muskulua	*Cyprinus carpio*	Iran	Zingira	2010	3240[b]	[134]
PEak	Muskulua	*Liza subviridis*	Taiwan	Erreka	2004-2005	0,05-254[b]	[142]
HCHak	Behazuna	*Hypophthalmichthys molitrix*	Txina	Erreka	ea	1,5-30[a]	[136]
	Gibela					0,07-18[c]	
	Muskulua					0,15-14[b]	
	Muskulua	*Cyprinus carpio*	Pakistan	Erreka	2007-2009	0,1-2,4[c]	[143]
DDTak	Behazuna	*Hypophthalmichthys molitrix*	Txina	Erreka	ea	nd-0,04[a]	[136]
	Gibela					nd-0,37[c]	
	Muskulua					nd-0,33[b]	
	Muskulua	*Cyprinus carpio*	Pakistan	Erreka	2007-2009	0,3-16[c]	[143]

[a] ng/mL; [b] ng/g (pisu lehorra); [c] ng/g (pisu hezea). Musketa fragantziak (HHCB eta AHTN), NPak (NP isomero nahastea), OPak (4*t*OP eta 4*n*OP), PEak (BBP, DEHP eta DOP), DDTak (2,4′-DDD, 4,4′-DDD, 2,4′-DDT, 4,4′-DDT), HCHak (α-HCH, β-HCH, δ-HCH, γ-HCH), OPPak (klorfirifosa eta klorfenbinfosa). ea: ez aipatua, nd: ez aurkitua.

3. Ingurumenean dauden konposatu kimikoen analisia

3.1. Erauzketa-teknikak

Kimika analitikoaren erronka nagusienetako bat, nagusiena ez bada, laginen aurretratamendua ahalik eta era egokienean egitea da. Ahalegin handia egin behar da laginaren aurretratamendu egokia gauzatzeko, baina pausu horren egokitasun ezak analisi osoaren porrota ekar dezake. Beraz, kimika analitikoaren helburua, aurretratamenduaren ikuspuntutik, doiak, zehatzak, sentikorrak, sendoak eta selektiboak diren metodoen garapena da.

3.1.1. Lagin likidoak

Likido-likido erauzketa (*Liquid Liquid Extraction*, LLE) eta fase solidoko erauzketa (*Solid Phase Extraction*, SPE) izan dira lagin likidoen konposatu organikoen erauzketarako orain arte gehien erabili izan diren bi teknika analitikoak [46, 144-147]. Bi teknika horien abantailarik nabarmenena haien erauzketa-eraginkortasun handia da eta, gainera, ez da tresneria sofistikaturik behar. Kontrara, laginak erauzteko denbora luzeak behar dira eta kimika berdearen printzipioekin ez datoz bat, disolbatzaile organikoen bolumen handiak erabili behar baitira. Azken urteotan, ingurumenarekiko sortu den kezka dela eta, disolbatzaile organiko gutxiago, edo disolbatzaile organikorik behar ez duten mikroerauzketa teknikak garatu dira, "sorptive" (adsortzio edo absortzio moduan) erauzketa-metodoetan oinarrituz [148, 149]. Teknika horien aitzindaria fase solidoko mikroerauzketa (*Solid Phase Microextraction*, SPME) da. Teknika hori Pawliszyn eta lankideek erabili zuten lehenbizikoz 1990. urtean [150] eta ordutik ona, oso teknika erabilia izan da konposatu organiko desberdinen azterketarako ur-laginetan [148, 151], arrainen behazunean [152], giza-plasman [153, 154] eta giza-gernuan [151, 155]. Teknika horren oinarria banaketa-orekan datza. Analitoa, lagina eta solidoa edo likidoa izan daitekeen fase hartzailearekin orekan dagoenean sortzen den egoeraren konstantea da [156]. Teknika guztiek bezala, SPMEk desabantaila garrantzitsu bat du. Fase polimerikoaren kopuru txikia bakarrik erabil daitekeenez, lortzen diren detekzio-mugak (*Limits Of Detection*,

LODs) ez dira behar bezain baxuak ingurumeneko uren analisia zuzenean burutzeko [102, 147, 157]. Arazo horri aurre egiteko, oreka-banaketa berdina erabiltzen duen beste teknika batek hartu zuen indarra 1999. urtean [158]. Teknika hori, hagatxo birakarien bidezko erauzketa (*Stir Bar Sorptive Extraction*, SBSE) da. Twister® moduan ere ezaguna da. Twister-hagatxoetan, iman bat fase polimerikoaz estalita dago. Hagatxoa lagin likidoarekin kontaktuan jartzean, analitoak fase polimerikoan absorbatuta/adsorbatuta geratzen dira.

Hagatxorik ohikoenak polidimetilsiloxanoz (*Polydimethylsiloxane,* PDMS) estalita daude. PDMSa, analito ez-polarrak erauzteko polimero egokiena da [145, 157, 159]. Analito polarrak erauzteko, ordea, hagatxo desberdinak garatu dira; Acrylate twister® eta EG Silicone twister®. Lehenbizikoa, poliakrilato (*Polyacrilate*, PAc) eta polietilenglikol (*Polyethylen Glycol*, PEG) nahaste polimerikoez osatuta dago eta bigarrena, ostera, PEG eraldatutako silikonaz [149]. SBSE erauzketan eragina duten parametroen artean, fase polimerikoaren mota eta kantitatea (luzera eta lodiera), hagatxoaren bira-abiadura, pHa, gatz inerte baten adizioa (NaCl normalean), disolbatzaile organiko baten adizioa (MeOH normalean), erauzketa-denbora (orekan lan egin ohi da), erauzketa-tenperatura eta laginaren bolumena aurkitzen dira. Parametro horiek erauzketaren orekan eta eraginkortasunean eragina dute eta erauzi nahi den analitoaren arabera eragin positiboa edo negatiboa eduki dezakete. Adibidez, gatz inerte baten gehipenarekin PDMS zuntzen bidez konposatu polarren erauzketa hobe daiteke (salting-out efektu bezala ezaguten dena). Disoluzioaren indar ionikoa handituz (NaCl gehituz) konposatu polarren kasuan batez ere, uretan duten disolbagarritasuna jaitsi daiteke PDMS polimeroan absorbatzeko joera faboratuz [160-162]. Konposatu organiko ez-polarren kasuan, ordea, NaClaren gehipenak kontrako joera eragin dezake (salting-in efektua).

Erauzketako parametroak optimizatu ostean, analitoak fase polimerikotik askatzeko (desorbatzeko) bi bide nagusi daude: desortzio termikoa (*Termal Desorption*, TD) eta desortzio likidoa (*Liquid Desorption*, LD). TDa erabili ahal izateko, analitoak bereizteko gas-kromatografia (*Gas-Chromatography*, GC) erabili behar da. Kasu horretan, hagatxoak gas-kromatografoaren injektoreari lotuta

dagoen desortzio termikoko unitatean (*Thermal Desorption Unit*, TDU) desorbatzen dira. Modu horretan, erauzitako analito guztiak zuzenean GCan injektatzen direnez, detekzio-muga baxuak lor daitezke. TDU bat eskuragarri ez dagoenean edo analisia likido-kromatografia (*Liquid Chromatography*, LC) teknikaren bidez aurrera eraman nahi denean, LDa izaten da analitoak hagatxotik desorbatzeko aukera bakarra. Azken kasu horretan, hagatxoa aurretik aukeratutako disolbatzaile organiko egoki batez estali ondoren eramaten da aurrera desortzioa eta, horrela, analitoak disolbatzaile oraganikoan geratzen dira disolbatuta [149, 163].

Ingurumeneko laginetan dauden konposatu kimikoek ezaugarri fisiko-kimiko desberdinak dituzte. Kimika analitikoaren erronketako bat ezaugarri fisiko-kimiko desberdinak dituzten familia desberdinetako konposatuen aldibereko determinazioa egitea da. Orain arte aipatutako teknika desberdinek (LLE, SPE, SPME eta SBSE) ez dituzte teknika analitikoen betebehar guztiak asetzen; ingurumeneko arazoengatik, denbora arazoengatik edo analito desberdinak erauzteko gaitasun ezarengatik. Arazo guzti horiei irtenbidea emateko, polimero desberdinak erabili izan dira mikroerauzketan oinarritutako metodoekin konposatu polarrak eta ez-polarrak aldi berean aztertzeko. Emaitza oparoak eskaini dituen polimeroetako bat polietersulfona (*Polyethersulfone*, PES) izan da (ikus **1.9 irudia**).

1.9 irudia: *PES polimeroan egitura kimikoa.*

PES polimeroa konposatu polarrak zein ez-polarrak erauzteko erabili izan da. 0,07-6,88 bitarteko log K_{ow} balioa duten analitoetarako egokia dela frogatu da [145]. Musketa fragantziak, APak, hormonak, konposatu farmazeutikoak, PEak, pestizidak, konposatu perfluorinatuak ur-laginetatik erauztea lortu dute hainbat ikerlarik [102, 145, 164]. PES polimeroak, polartasun desberdineko konposatuak erauzteaz gain, kostu baxua (~ 0,05 €/analisi) du komertzialki saltzen diren hagatxoekin alderatuz. Kostu baxu horri esker, ez dago hagatxoak berrerabili

beharrik. Horrek oroimen-efektua eta hondatze kimikoak edo mekanikoak sor ditzakeen erauzketa-eraginkortasunean aldaketak saihestea suposatzen du [145]. Kontrara, PES polimeroa ezin da momentuz TDan erabili; beraz, LDa erabili behar da beti analitoak polimerotik desorbatzeko. Nolanahi ere, ng/L mailako detekzio-mugak lortzen dira dagoeneko [102, 164].

3.1.2. Lagin solidoak

Solido-likido erauzketa (*Solid-Liquid Extraction*, SLE) tekniken artean Soxhlet erauzketa izan da urtetan zehar gehien erabili izan dena [82, 165-167]. Lagin likidoen erauzketan gertatzen den moduan, teknika klasikoek disolbatzaile organikoen bolumen handiak (100-250 mL) behar izaten dituzte eta erauzketa-urratsa burutzeko nahiko denbora luzeak. Teknika analitiko berrien garapenarekin erauzketa-metodo berriak garatu dira. Horien artean aipagarrienak mikrouhinen bidezko erauzketa (M*icrowave Assisted Extraction*, MAE), ultrasoinuen bidezko erauzketa (*Ultrasound Extraction*, USE) eta presiopeko likido erauzketa (P*ressurised Liquid Extraction*, PLE) daude. Azken hori disolbatzailearen bidezko erauzketa azeleratua (*Accelerated Solvent Extraction*, ASE) moduan ere ezagutzen da. PLEaren eta MAEaren kasuan (sistema itxian lanean ari bagara), disolbatzailea presiopean dago eta, presioa igoz, disolbatzaile organikoaren irakite tenperatura ere igotzen denez, tenperatura altuagoetan lan egin daiteke eta ondorioz erauzketa faboratu [168, 169] eta erauzketa denbora txikitu egiten da. Erauzketa-teknika horiekin, erauzketan erabili behar den disolbatzaile organikoaren bolumena ere asko murriztu da (10-25 mL).

Disolbatzaile organiko gutxi erabiltzen duen beste teknika bat, lehenago adierazi bezala, USE da. USE erauzketan, lagina disolbatzaile organiko batekin edo disolbatzaile-nahasketa batekin jartzen da kontaktuan eta ultrasoinu-energiaren bidez erauzten dira konposatuak. USE tekniken artean, ultrasoinu fokatu bidezko solido-likido erauzketa (*Focused Ultrasound Solid Liquid Extraction*, FUSLE) garrantzia hartzen hasi da azken urteotan biota laginetatik APak [170], hormonak [170], PAHak [171, 172] eta konposatu perfluorinatuak [173] aztertzeko, ohiko ultrasoinu-bainuak baino errepikakorragoa baita. FUSLEn, disolbatzaile organikoan murgilduta dagoen titaniozko edo beirazko punta baten bidez egiten

da sonikazioa eta lortzen den indarra ultrasoinu-bainuan lortzen dena baino 100 bider handiagoa da [174]. Energia-fokatze horren ondorioz erauzketa-denborak segundo eta minutu gutxi batzuetara labur daitezke [175].

Ultrasoinuak intentsitate nahikoa lortu duenean, burbuilak edo kabitateak sortzen dira hedapen-zikloan zehar. Burbuilak sortu eta lehertzeko fenomenoari kabitazioa deritzo [176]. Kabitazio-burbuila bat lagin solido baten partikulen gainazaletik gertu lehertzen denean, disolbatzailearen tantak abiadura handian sakabanatzen dira solidoaren gainazaletik zehar eta gainazala zulatzen eta erosio mekanikoa sortarazten du. Horren ondorioz, partikulen apurketa gertatzen da, tamaina txikiko partikulak sortuz [177, 178]. Burbuilen apurketarekin batera, mikroskopikoki tenperatura (< 5.000 K) eta presio (< 2.000 atm) oso handiak lortzen dira eta horrek ere erauzketaren baldintza makroskopikoak aldatu barik, erauzketa faboratzen du [177]. Irradiazio ultrasonikoa disolbatzailearen bidez transmititzen denean, perturbazioa sortzen da (eta horren errepikapenaz), hedapen- eta konpresio- zikloak sortzen dira [179] (ikus **1.10 irudia**).



1.10 irudia: *FUSLE erauzketan sortzen den kabitazio fenomenoaren eskema.*

Aipatu diren teknika guztiak, bai lagin likidoetatik analitoak erauztekoak bai lagin solidoetatik erauztekoak, ez dira oso selektiboak eta intereseko analitoez gain hainbat interferentzia ere erauzten dituzte [175, 180]. Kasu gehienetan interferentziak ezabatzeko garbiketa urrats bat egin behar izaten da analisiaren aurretik.

3.2. Garbiketa-teknikak

Lagin solidoen eta likidoen garbiketa-urratsa egiteko, garbiketa-teknika berdinak erabil daitezke. Hala ere, aztertu nahi den matrizearen arabera, erauzitako interferentziak desberdinak dira eta horrek finkatzen du aukeratu beharreko garbiketa-teknika.

Garbiketa-teknika klasikoen artean, SPE delakoa da erabiliena [175]. SPE teknikak lagin likidoetatik analitoak erauzteko erabiltzen diren teknikek duten oinarri berdina du. Florisil®, silizea eta alumina dira ur- [46, 181] eta biota-laginen [182, 183] garbiketarako gehien erabiltzen diren adsorbatzaileak. Garbiketa urratsean erabiltzen diren adsorbatzaileen masak handiak izan ohi dira (150-5.000 mg) eta, ondorioz, kartutxoa egokitzeko, interferentziak ezabatzeko eta analitoak eluitzeko erabili behar den disolbatzaile organikoaren bolumena ere handia da. Gel-permeazio kromatografia (*Gel Permeation Chromatography*, GPC) asko erabili izan den beste garbiketa-teknika bat da, batez ere biota-laginek duten koipea kentzeko [45, 184]. Zutabe kromatografiko bereziak erabiliz, tamainaren araberako banaketa egiten da, koipeak zutabean atxikituta geratzen dira eta intereseko molekulak bakarrik eluitzen dira. GPCan, SPEan bezala, disolbatzaile organikoen bolumen handiak erabili behar izaten dira; hala eta guztiz ere, gaur egun asko erabiltzen dira [185, 186].

Erauzketa-teknikekin gertatzen den moduan, kimika analitikoan egindako aurrerapenei esker, ingurumenarekin egokiagoak diren teknikak garatu dira. Garbiketa-metodo klasikoei irtenbidea emateko, fase solidoko erauzketa dispertsoaren (*Dispersive Solid Phase Extraction*, dSPEaren) erabilera asko hedatu da azken urteotan [15, 144, 175]. dSPE teknikaren erabilera Anastassiadeek eta lankideek [187] proposatu zuten estrainekoz "QuEChERS"(*Quick Easy Cheap Effective Rugged Safe*, azkarra erraza merkea eraginkorra sendoa segurua) metodoarekin batera. dSPE metodoaren abantailarik nagusienak erabiltzen diren disolbatzaile organikoaren bolumen txikia eta prezio merkea dira. Ohiko SPE zutabeetan erabiltzen diren adsorbatzaileak erabili daitezke dSPEan. Gehien erabili diren adsorbatzaileak hauexek dira: amina primarioak eta sekundarioak (*Primary*

and Secondary Amine, PSA) gantz azidoak kentzeko, ENVI-CARBa (ENVI) esterolak eta pigmentuak kentzeko eta oktadezilsilanoa (*Octadecylsilane*, C_{18}) interferentzia ez-polarrak kentzeko [144, 180, 186]. Zenbait kasutan, ur-arrastoak kentzeko $MgSO_4$ ere gehitzen zaio. dSPE urratsean aukeratutako fasea edo faseen nahasketak $MgSO_4$ eta intereseko analitoak dituen erauzia tutu batean nahasten dira eta irabiagailu baten laguntzaz irabiatzen da nahastea fase solidoa dispertsatzeko. Fasea dekantatu ostean, intereseko analitoak disolbatzailean geratzen dira eta interferentziak fasean adsorbaturik (ikus **1.11 irudia**). Interferentziekiko afinitate altua duen adsorbatzailea aukeratu behar da eta analitoekiko afinitate handia duen disolbatzailea, aldiz. dSPE metodoa BPA [180, 188], hormonak [180, 188, 189] eta pestizidak [185] biota-laginen garbiketarako erabili dira maiz, baita konposatu organikoak plasmatik [144, 190], gernutik [190] eta elikagaietatik [191] erauzteko ere.



1.11 irudia: *dSPE garbiketan jarraitu beharreko urratsak.*

3.3. Hidrolisi-urratsa

Konposatu organikoek, behazunetik zehar kanporatu nahi direnean, 2.2 atalean aipatu den moduan, gibelean 2. faseko (*Phase II*) metabolismoa jasaten dute glukuronido, glukosido edo sulfato bihurtzeko. Molekula konjokatu horiek zuzenean azter daitezke analisi zuzena deitzen den metodo multzoen bidez, edo analisi ez-zuzenen bidez. Azken metodo-multzo horretan, molekula konjokatuak hidrolisatu egiten dira jatorrizko analitoen moduan aztertzeko.

Bibliografian oso lan gutxi aurkitzen dira analisi zuzena erabiltzen dutenak [192-194]. Estrogenoak era konjokatuan (glukuronido, glukosido eta sulfatoak) aztertu zituen lehenbiziko lana 2002. urtean plazaratu zen [195]. Talde berak, urte batzuk geroago, araztegiko sarrerako eta irteerako uretan estrogeno konjokatuak aztertu zituen [194]. Erauzketa teknika moduan SPEa erabili zuten aipatutako bi lanetan, baina ez zuten inolako garbiketa urratsik erabili, eta horrek kromatografiako detekzio-urratsean % 80-90 seinale galera eragin zuen laginak elektroesprai ionizazio (*Electrospray Ionisation*, ESI) sistemaren bidez neurtu zirenean [195]. Antzeko emaitzak lortu zituzten Pedrouzo eta lankideek [196]. Estrogeno konjokatuak oso polarrak dira eta garbiketa-urrats egokia egitea ez da erraza, orokorrean lortzen diren berreskurapenak oso baxuak izanik [133]. Komori eta lankideek [197] erauzketa-urratsaren ostean SPE metodoan oinarritutako bi garbiketa-urrats egin zituzten Florisil® eta NH_2 adsorbatzaileak erabiliz, baina lortu zituzten berreskurapenak oso baxuak izan ziren araztegiko irteerako (% 18-81) eta sarrerako (% 6-15) uretan. Bi garbiketa-urrats nahikoak ez zirela zirudien eta horregatik, ikerketa talde berak 3 urratseko garbiketa proposatu zuen. Ur purifikaturako lortu zituzten emaitzak onargarriak izan ziren (% 63-81), baina ez zuten inolako berreskurapen azterketarik egin araztegiko urekin. Azkenik, Koh eta lankideek [198] SPE bidez erauzitako laginetan, GPC eta SPE garbiketa-urratsen ostean, emaitza oparoak lortu zituzten (% 95-99).

Estrogeno konjokatuak neurtzeko teknikarik ohikoena LCa da, ESI ionizazioa erabiliz, baina aipatu den moduan, garbiketa-urrats egokia lortzea zaila izaten da eta zuzenenean neurtzen denean seinaleen galera handia da. Arazo horri

irtenbidea emateko, elektroforesi kapilarra kromatografia-sistema erabili zen eta emaitza oparoak lortu ziren. Tamalez, teknika hori ez da ingurumeneko laginak neurtzeko guztiz aproposa ESIren bidez lortutako detekzio-mugak baino 20 aldiz altuagoak lortzen baitira [199].

Analisi zuzenak egiten direnean, lagin bakoitzaren analisi-denbora asko laburtzen da, ikerlari askoren aburuz hidrolisi-urratsa baita mugatzailea [133, 200]. Analisi zuzenaren bidez glukuronido, glukosido eta sulfato guztiei buruzko informazioa jaso daiteke, baina aipatu beharra dago molekula konjokatu guztiak ez direla komertzialki eskuragarriak eta horrek erauzketa-metodoa eta metodo kromatografikoaren garapena oztopa dezakeela. Beraz, zenbait kasutan, ezinbestekoa da analisi ez-zuzena egitea.

Hidrolisia, orokorrean, bi modutan eraman daiteke aurrera. Alde batetik, hidrolisi kimikoa eta, beste aldetik, hidrolisi entzimatikoa. Hidrolisi kimikoa hidrolisi basiko (saponifikazio), azido, solbolisi azido eta amonolisiaren bidez egin daiteke, eta 4 bideak beren artean osagarriak dira. Gernuan estrogeno konjokatuen hidrolisien bidez egindako lanek ez dute emaitza egokirik eman gernuan egon daitezkeen interferentzien erruz. Horregatik, zenbait ikerlarik interferentzia horiek ezabatzeko, hidrolisi urratsaren aurretik LLE-a egitea proposatu izan dute [201-203]. Hidrolisiaren etekina handitzeko egindako azken saiakera, hidrolisia disolbatzaile organiko ez-polarretan egitea izan da. Disolbatzaile polarrekin alderatuta, emaitza oparoak lortu dituzte Liu eta lankideek [133]. Behazunaren matrizea urtsua dela kontuan hartuz, azken hidrolisiaren hobespen hori baztertua izan da eta aukerarik egokiena hidrolisi entzimatikoa dela onartu. Nahiz eta hobekuntza nabaria egin izan den, hidrolisi kimikoaren eraginkortasuna % 100 izatetik urrun dago oraindik. Gainera, hidrolisi kimikoan erabili beharreko baldintzak nahiko bortzitzak izan daitezke eta horrek analitoen galerak ekar ditzake [122].

Hidrolisi entzimatikoa hidrolisi kimikoa baino askoz gehiago erabili izan da, honek eskaintzen dituen dekonjokazio-maila altuengatik [133]. Hidrolisi entzimatikoa erabiltzen hasi zenean entzimak, β-glukuronidasa eta sulfatasa, animalia hornodunengandik lortzen ziren, baina berehala erabaki zuten

Eschericia Coli eta barraskilotik (*Helix pomatia*) lortzea [204, 205]. Barraskilotik lortzen den entzima β-glukuronidasaz eta sulfatasaz osatuta dago. Entzima mota horiekin, Bloch eta lankideek [204] hidrolisi azidoarekin alderatuta, % 70-100 kontzentrazio altuagoa lortu zuten. Hidrolisi entzimatikoan aktibitate entzimatikoa, denbora, tenperatura eta pH-a kontrolatzea ezinbestekoa da dekonjokazio-maila maximoa lortzeko. Asko dira bibliografian hidrolisi entzimatikoa egin duten ikerlariak, baldintza zeharo desberdinak erabili dituztenak. β-glukuronidasa eta sulfatasa entzimak erabiltzen dituzte ikerlari gehienek, hidrolisia 37 °C-an 12-24 ordu bitartean burutzen dute [114, 123, 125, 152, 204, 206, 207]. Hidrolisi-denbora laburtzeko, zenbait ikerlarik hidrolisiaren tenperatura 40-55 °C-ra igo zuten eta 2-3 ordura laburtu zuten hidrolisi-urratsa [119, 139, 208, 209]. Nahiz eta hidrolisiaren denbora asko laburtu, analisi osoaren denborak luzea izaten jarraitzen du. Kimika analitikoaren garapenari esker, teknika berriak erabili izan dira hidrolisia azkartzeko. Álvarez-Sánchez [210] eta Vallejo [122] ikerlariek, US-energia erabili zuten hidrolisia azkartzeko. Álvarez-Sánchezek hidrolisia burutzeko 30 minutu behar izan zituen estrogenoen kasuan, eta Vallejo eta lankideek AP eta E2 konposatuen hidrolisirako 20 minutu. Aurrerapausu izugarria izan da denbora murrizketa hori, baina laginak banan-banan hidrolisatu behar direnez, lagin asko aztertu behar badira analisi-denbora ez dela gehiegi murrizten aipatu beharra dago. Analisi osoaren denbora are gehiago laburtu nahian, Kawaguchi eta lankideek [211] aldibereko hidrolisia eta erauzketa metodo bat proposatu zuten gernu-laginetan 4-nonilfenol glukuronidoa (*4-Nonylphenol Glucuronide*, 4-NP-G) SBSE bidez aztertzeko. 90 minutu nahikoa izan zen hidrolisia eta erauzketa berreskurapen egokiarekin burutzeko. SBSE edo antzeko tekniken bidez ur-laginak erauzteko normalean 12h-tik gora behar direla aipatu behar da [102]. Matrize eta analito desberdinekin proba gehiago egin beharko lirateke, baina badirudi, bide hori izan daitekeela analisi-denborak laburtzeko eta, bide batez, ingurumenari begira egokiagoak diren teknikak lortzeko modua.

4. Konposatu kimikoen azterketa

Kromatografia, eskaintzen duen bereizketa ahalmenagatik, konposatu organikoen azterketarako gehien erabiltzen den teknika da [2, 180, 212]. Konposatuen propietate fisiko-kimikoen arabera, GCa edo LCa izan daiteke aukera. Jarraian sakonago deskribatuko da teknika bakoitza.

4.1. Gas-kromatografia

GCa azkarra, sinplea, erlatiboki merkea eta errepikakorra den bereizketa-teknika da [213] eta lurrunkorrak edo erdi-lurrunkorrak eta termikoki egonkorrak diren konposatuak bereizteko erabiltzen da. Bereizketa hori, analitoen irakite-tenperaturaren arabera egiten da gehienbat. Fase organiko batean disolbatuta dauden analitoak tenperatura altuan (260-300 °C) dagoen injektore batean lurrundu ostean, tenperatura kontrolatzen duen labe batean dagoen zutabe kapilar batean sartzen dira gas garraiatzaile baten laguntzaz (He, H_2 edo N_2). Zutabe kapilar horiek, luzera (10 m-60 m) eta barne diametro (100 µm–320 µm) desberdinak edukitzeaz gain, barrualdeko paretak, lodiera desberdineko fase geldikor batez (0,1 µm-1 µm) estalita daude. Zutabearen parametro horiek eta labearen tenperatura kontrolatuz, analitoen bereizketa eraginkorra lor daiteke. Zutaberik erabilienak % 5-(fenil)-% 95-metil polisiloxanoz eginda daude, 30 m-ko luzera dute, 250 µm-ko barne diametroa eta 0,25 µm-ko fase geldikorreko lodiera [46, 145, 161, 185]. GC bidez bereiz daitezkeen konposatuen artean, musketa fragantziak [32, 103, 145, 214], pestizidak [145, 161, 185], PEak [46, 76, 80], APak [92, 102, 167], BPA [45, 46, 146] eta estrogenoak [46, 119, 122] daude (ikus **1.4 taula**).

GCaren bidez berizten diren analitoen analisia edo detekzioa egiteko gaur egun erabiltzen den detektagailurik ohikoena masa-espektrometroa (*mass spectrometry*, MS) da (ikus **1.4 taula**). MSa detektagailu unibertsala, selektiboa eta sentikorra da. Gas-kromatografia–masa-espektrometria (*Gas Chromatography-Mass Spectrometry*, GC-MS) teknika ingurumeneko laginen azterketarako oso teknika erabilia da bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, GC-MS teknika erabiltzen denean, konposatuen identifikazioa egiteko erabil daitekeen espektroen datu-basea

unibertsala eta nahiko handia da [215, 216] eta, beste aldetik, ingurumeneko lagin desberdinetarako lortzen diren detekzio-mugak egokiak dira [46, 145, 161, 185] (ikus **1.4 taula**). Orain arte, MSa izan da detektagailurik erabiliena, baina gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen dira tandem masa-espektrometrian (*tandem mass spectrometry*, MS/MS) oinarritutako metodoak [80, 100, 123, 217]. Kuadrupolo hirukoitzari esker, selektibitatea igo daiteke eta horri esker positibo faltsuak saihes daitezke. Horrez gain, matrize-interferentziak murrizten ditu, zenbait kasutan matrize-efektua guztiz saihestuz. Horrek zarata/seinale erlazioa hobe dezake, sentikortasuna handituz [80, 100].

Selektibotasuna hobetzeko beste aukera bat ionizazio-teknika desberdinak erabiltzea da. MS detektagailuetan erabiltzen den ionizazio-mota ohikoena elektroi-ionizazioa (*Electron Ionisation*, EI) da [29, 46, 162]. EI ionizazio-teknika oso indartsua da, eta askotan jatorrizko molekularen MWari buruzko informazio guztia galdu egiten da. Informazio hori ezagutzea garrantzitsua izan daiteke molekula baten identifikaziorako. PEak dira horren adibide. EI bidez neurtu nahi direnean, PE guztietan oso egonkorra den egitura berdina lortzen da eta horrek ia masa-espektro berdina ematea eragiten du edozein dela jatorrizko PEaren adarkadura. Arazo horri irtenbidea emateko, ionizazio-teknika ahulagoak erabil daitezke, ionizazio kimikoa (*Chemical Ionisation*, CI) [218, 219] edo presio atmosferikoko gas-kromatografia (*Atmospheric Pressure Gas Cromatography*, APGC), [146] adibidez.

Beste alde batetik, sentikortasuna igotzeko beste aukera bat, detektagailuz aldatu gabe, injekzio-sistema desberdinak erabiltzea da. Orokorrean, GC sisteman 1-3 μL lagin injekta daitezke split/splitless injektorean (ikus **1.4 taula**). Azken urteotan, bolumen handiko injekzioa (*Large Volume Injection*, LVI) garrantzia hartzen hasi da split/splitless injekzio sistemarekin alderatuz gero [220]. LVI bidez, bolumen handiak (100 μL-raino) injekta daitezkeenez, LOD eta LOQ txikiagoak lor daitezke. Hala ere, aipatu beharra dago lagin gehiago sartzearekin batera matrize gehiago ere sartzen dela sistemara, eta MDLak ez direla zertan hobetu LOD eta LOQ mugekin gertatzen den moduan. LVIa tenperatura programatutako baporizatzaile (*Programmable Temperature Vaporizing*, PTV, (ikus **1.12 irudia**))

sistemari akoplatuta dago. Bertan, injektatzen den erauziaren disolbatzailea lurrunduz doa fluxu eta tenperatura (disolbatzailearen irakite tenperatura baino 10 gradu baxuago) kontrolatu batean eta, horregatik, analitoak injektorearen atorrean (linner) kontzentratzen dira. Lurruntze-urrats horren ostean, injektorearen tenperatura oso azkar igotzen da, analito guztiak lurrun daitezen, eta GCko zutabera garraiatzen dira (splitless moduan) [220].



1.12 irudia: *LVI-PTV injekzio sistemaren eskema.*

Azkenik, GCa erabiltzen denean, analitorik polarrenek (karboxilo, hidroxilo eta amino taldeak dituzten molekulak) lurrunkortasun baxua izaten dute eta beren bidezko bereizketa ez da bideragarria GC zutabe kapilar ez-polarrak erabiltzen direnean. Beste zenbait kasutan, konposatuak lurrunkorrak dira baina zutabean adsorbatuta geratzen dira edo deskonposatzen dira, mamu-gailurrak eta buztandun gailurrak eratuz eta, ondorioz, sentikortasuna galduz [213]. Hori guztia saihesteko, deribatizazio-erreakzio baten bidez, konposatu polarrak, konposatu ez-polarrago bilakatzen dira, beren lurrunkortasuna handituz eta GC bidez neurtzeko aproposagoak bihurtuz (zutabe ez-polarrekin). Estrogenoak GC bidez neurtu nahi badira, deribatizazio-urratsa ia ezinbestekoa da [46, 119, 122, 146], eta APen eta BPAren kasuan, deribatizazioak sentikortasuna hobe dezake [221, 222]. Nolanahi ere, urrats hori ez da beti burutzen analisiari etapa bat gehitzea dakarrelako (ikus **1.4 taula**).

***1.4 taula**: EDCak neurtzeko GC teknika erabiltzen duten metodoen laburpena, GC teknikaren parametrorik esanguratsuenak laburbilduz.*

Konposatuak	Matrizea	Erauzketa	Garbiketa	Deribatizazioa	Injekzioa	Bereizketa eta detekzioa	Detekzio-mugak (ng/L)	Ref
Pestizidak, PEak	Araztegiko irteera Araztegiko sarrera	SPE (Oasis-HLB)	SPE (Florisil)	Ez	LVI-PTV	GC-MS	1-322[a]	[46]
BPA, APak, estrogenoak	Araztegiko irteera Araztegiko sarrera	SPE (Oasis-HLB)	SPE (Florisil)	BSTFA(50 µL) + Piridina (125 µL)	LVI-PTV	GC-MS	1-55[a]	[46]
Pestizidak	Itsasoko ura	SBSE (PDMS)	Ez	Ez	TDU	GC-MS	0,0-7,5	[161]
BPA, APak	Errekako ura Arrain muskulua Arrain gibela	SPE (C_{18}) MAE MAE	Ez GPC GPC	BSTFA(50 µL) + Piridina (30 µL)	Split-Splitless	GC-MS	0,2-12[c] 0,3-8[c]	[45]
Pestizidak	Arrain muskulua	QuEChERS (dispersive SPE)	dSPE (PSA)	Ez	LVI-PTV	GC-MS	1-2[c]	[185]
Estrogenoak, APak	Arrain behazuna	SPE (Oasis-HLB)	Ez	BSTFA(25 µL) + Piridina (125 µL)	Split-Splitless	GC-MS	2-13	[122]
APak, BPA, estrogenoak	Arrain behazuna Errekako ura	SPE (Oasis-HLB)	Ez	Pentafluorobentzilazioa (20 ng BPFBB)	Split-Splitless	NCI-GC-MS	1-10[b]	[44]
Estrogenoak	Arrain odola Arrain behazuna	SPE (C_{18})	SPE (NH_2)	MSTFA/ NH_4I β-merkaptoetanol (30 µL, % 99.1:0,5:0,4)	Pulsed splitless	GC-MS	100[a]	[119]
Musketa fragantziak	Araztegiko sarrera Araztegiko irteera	LLE (toluenoa)	Ez	Ez	Split-Splitless	GC-MS	10-100[b]	[32]
Musketa fragantziak	Araztegiko irteera	HS-SPME (PDMS/DVB)	Ez	Ez	Split-Splitless	GC-MS	40[a]	[214]
Pestizidak, estrogenoak	Araztegiko sarrera Araztegiko irteera	PES tutuak	Ez	Ez	LVI-PTV	GC-MS	2-3[a]	[145]
APak, BPA, estrogenoak, musketa fragantziak, pestizidak	Araztegiko irteera	SBSE (PDMS)	Ez	Azido azetikoa (500 µL)	Split-Splitless	APGC-TOF-MS	0,02-2[c]	[146]

***1.4 taula**: Jarraipena. EDCak neurtzeko GC teknika erabiltzen duten metodoen laburpena, GC teknikaren parametrorik esanguratsuenak laburbilduz.*

Konposatuak	Matrizea	Erauzketa	Garbiketa	Deribatizazioa	Injekzioa	Bereizketa eta detekzioa	Detekzio-mugak (ng/L)	Ref
PEak	Arrain muskulua Arrain gibela	US (Hex:Ace 80:20)	SPE (Florisil)	Ez	Split-Splitless	GC-MS	8-11	[76]
APak, BPA	Errekako ura	SBSE (PDMS)	Ez	Azido azetikoa (200 µL)	TDU	GC-MS	0,5-1[a]	[147]
APak, BPA	Arrain behazuna Arrain odola Arrain muskulua	SPE (Oasis-HLB) SPE (Oasis-HLB) US (MeOH)	Ez Ez SPE (Oasis-HLB)	EtOAc (180 µL) + MTBSTFA (20 µL)	Split-Splitless	GC-MS	0,2-0,6[b] 0,2-0,6[b] 0,2-0,6[b]	[118]
Estrogenoak	Araztegiko irteera	SPE (Oasis-HLB)	Ez	BSTFA(70 µL) + EtOAc (35 µL)	Split-Splitless	GC-MS	0,05-0,06[a]	[108]
Pestizidak, APak, BPA, musketa fragantziak	Arrain gibela	QuEChERS (T10-Ultra torrax)	dSPE (PSA + C_{18})	Ez	Split-Splitless	GC-MS	ea	[227]
Estrogenoak	Arrain odola	SPE (C_{18})	SPE (NH_2)	MSTFA:TMSI:DTE	Split-Splitless	GC-HRMS	0,002[a] (ng/g)	[228]

[a]: LOD (detekzio-muga), [b]: LOQ (kuantifikazio-muga), [c]: MDL (metodoaren detekzio-muga), [d]: MQL (metodoaren kuantifikazio-muga).
PEak (ftalato esterrak); BPA (bisfenol-A); SPE (fase solidoko erauzketa); LVI-PTV (bolumen handiko injekzioa-tenperatura programatuko baporizatzailea); GC-MS (gas kromatografia-masa espektrometria); BSTFA (N,O-Bis(trimetilsilil)trifluoroazetamida); SBSE (hagatxo birakarien bidezko erauzketa); PDMS (polidimetilsiloxanoa); TDU (desortzio termikoko unitatea); MAE (mikrouhinen bidezko erauzketa), GPC (gel permeazio kromatografia); Quechers (azkarra, erreza, merkea, eraginkorra, sendoa eta segurua); dSPE (fase solidoko erauzketa dispertsoa); PSA (amina primarioa eta sekundarioa); BPFBB (1,4-bispentafluorobenzylbenzene); MSTFA (N-metil-N-(trimetilsilil)trifluoroazetamida); LLE (likido-likido erauzketa); HS-SPME (buru-gunea-fase solidoko mikroerauzketa); DVB (dibinilbentzenoa); PES (polietersulfona); US (ultrasoinua); Hex (hexanoa); Ace (azetona); EtOAc (etil azetatoa); MTBSTFA (N-tert-Butildimetilsilil-N-metiltrifluoroazetamida); C_{18} (oktadezil silanoa); TMSI (iodotrimetilsilanoa); DTE (ditioritriola); GC-HRMS (gas kromatografia-erresoluzio altuko masa espektrometria). Musketa fragantziak (HHCB, AHTN), APak (4*t*OP, 4*n*OP, NP mix), pestizidak (2,4′-DDD, 4,4′-DDD, 2,4′-DDT, 4,4′-DDT, α-HCH, β-HCH, δ-HCH, γ-HCH, klorfiribosa, klorfenbinfosa), estrogenoak (E2, EE2), PEak (DEHP, DOP, BBP).
ea: ez aipatua. Lagin likidoen kasuan mugak ng/mL unitateetan daude eta lagin solidoen kasuan ng/g-tan.

3 deribatizazio-metodo desberdin daude: banaketa aurreko deribatizazioa, zutabeko deribatizazioa (*on column*) eta banaketa ondoko deribatizazioa. Lehenengo biak GCan erabiltzen dira analitoen lurrunkortasuna handitzeko, eta hirugarrena LCan gehienbat, molekulen detekzioa hobetzeko. Zutabeko deribatizazioan analitoak eta deribatizatzaileak injekzio-portuan nahasten dira [223]. Deribatizazio-mota horrek analisi denbora laburtzen du baina deribatizatzailea soberan gehitzeak zutabearen fase geldikorraren degradazioa ekar dezake eta, ondorioz, ez da guztiz gomendagarria zutabearen bizitza asko murrizten baita. Hori dela eta, banaketa aurreko deribatizazioa izaten da ohikoena. Deribatizazio-erreakzio desberdinak daude. Ezagunenak azetilazioa (azido azetiko anhidroa erabiliz) [146, 147] eta sililazioa [45, 46, 119, 122] dira, nahiz eta azken hori izan erabiliena. Sililazioa ordezkapen nukleofilikoan oinarritzen da, non alkilsilil talde elektrofilikoa, orokorrean trimetilsilil (*Trymethylsilyl*, TMS) taldea, gune nukleofilikora elkartzen den bertako H bat kanporatuz [160]. Orokorrean, TMS eratorrien analogoak dira egonkorrenak. Silil-emaile talderik ezagunenak N,O-bis (trimetilsilil) trifluoroazetamida (*N,O-bis (trimethylsilyl) Trifluoroacetamide*, BSTFA), N,O-bis (trimetilsilil) azetamida (*N,O-bis (trimethylsilyl) Acetamide*, BSA) eta N-metil-N-(trimetilsilil) trifluoroazetamida (*N-methyl-N-(trimethylsilyl) Trifluoroacetamide* (MSTFA) dira. Sililazio-erreakzioaren desabantailarik nagusiena hurrengoa da: TMS taldea urarekin edo hezetasunarekin hidrolizatzen da eta ondorioz erreakzioa gelditu egiten da. EE2aren deribatizazioan, BSTFA eta MSTFA erabiltzen direnean piridina edo formaldehidoa erabili behar dira disolbatzaile gisa EE2tik E1erako oxidazioa saihesteko eta bi alkohol taldeen deribatizazioa lortzeko (ikus **1.13 irudia**) [224-226].

1.13 irudia: *E2 molekularen 2 alkohol taldeen deribatizazioa TMS taldea erabiliz.*

Deribatizazio-urrats hori saihestu nahian, ikerlari askok LC bidezko bereizketa eta analisia nahiago dute.

4.2. Likido-kromatografia

GC bidez neurtu ezin diren molekulak (konposatu ez-lurrunkorrak) edo deribatizazio-urratsa pairatu behar dutenak izaten dira LC bidez bereiztu eta neurtzen direnak. Gutxi gorabehera, molekula guztien % 80 ez da GC bidez neurtzeko aproposa. Azken urteotan, LCaren garapenarekin batera, gero eta gehiago dira APak, BPA eta estrogenoak neurtzeko LCa erabiltzen duten ikerlariak [2, 15, 47, 212] (ikus **1.5 taula**). Aipatutako konposatuez gain, LC bidez, 1. faseko eta 2. faseko metabolismo prozesuetan sortutako metabolitoak eta glukuronidoak, glukosidoak eta sulfatoak neur daitezke [126, 180, 193, 194, 229]. Halaz guztiz, LCak badu desabantaila nagusi bat, hots: GCarekin alderatuz gero, matrize-efektua neurketan nabarmenagoa izan daitekeela. Matrize-efektuak seinalearen desagerpena edo handitzea ekar dezake eta, horrekin batera, galerak zehaztasunean edota doitasunean [230, 231]. Ondorioz, garbiketa-urrats egokia egitea gomendagarria da lagina LC bidez aztertu aurretik.

GCan bezala, LCan detektagailurik erabiliena MSa da, eta azken urteotan MS/MS detektagailua indarra hartzen hasi da [15, 180, 229] (ikus **1.5 taula**). GCan ez bezala, MS edo MS/MS detektagailuez gain, beste detektagailu mota batzuk

Lagin likidoak lan honen 4. kapituluan aipatu bezala aztertu ziren. Laburki azalduz, 100 µL arrain-behazuni (n=3) 1,5 mL fosfato disoluzio indargetzaile (0,1 mol/L, pH=6), 800 µL Milli-Q ura eta dagozkion entzimen 200 µL gehitu zitzaizkien (1.000 U/mL β-glukuronidasa, 2 U/mL sulfatasa eta 20 U/mL β-glukosidasa) hidrolisia aurrera eramateko Gibson eta lankideek [32] proposatu bezala. Hidrolisia egin aurretik, analito deuteratuen ([$^2H_4$]-DEHP, [$^2H_{15}$]-MX, [$^2H_4$]-NP, [$^2H_4$]-BPA eta [$^2H_3$]-E2) disoluzio-nahastearen 100 µL gehitu zen eta hidrolisia 37 °C-an egin zen 12 orduz. Hidrolisia gelditzeko, laginei 300 µL HAc eta 2 mL Milli-Q ur gehitu zitzaizkien [33]. Behin hidrolisia amaituta, laginak aurretiaz 2 mL MeOH eta 2 mL Milli-Q:HAc (99:1, b/b) nahastearekin egokitutako Plexa kartutxoetatik pasarazi ziren. Ondoren, kartutxoa 2 mL Milli-Q:MeOH (95:5, b/b) nahastearekin garbitu zen. Analitoak eluitzeko 4 mL EtOAc pasarazi ziren kartutxotik eta lortutako erauzia ~1 mL izateraino lurrundu zen N2 korronte baten pean. Garbiketa urratserako, 5 mL hexanorekin egokitutako 1 gramotako Florisil kartutxoak erabili ziren. Eluzio urratserako, 3 mL Hex:EtOAc (90:10, b/b) eta 3 mL EtOAc:MeOH (25:75, b/b) erabili ziren. Lehenengo frakzioa (APak, musketa fragantziak eta PEak) 175 µL hexanotan berreratu zen eta GC-MS-aren bidez aztertu. Gainontzeko frakzio erdia, bigarren frakzioarekin batera (BPA eta hormonak) 150 µL ACN:Pyr (50:50, b/b) eta 50 µL of BSTFA + 1 % TMCS erabiliz deribatizatu zen 45 minutuz 65 °C-an. Lagin horiek, GC-MS-aren bidez aztertu ziren.

Behazun laginen bi frakzioak 2 injekzio desberdinekin neurtu ziren 6890N kromatografoari (Agilent Technologies) lotutako 5973N elektroi-talkaren bidezko ionizazio duen masa-espektrometroan. 2 frakzioetan analitoen banaketa HP-5MS zutabe kapilarrean (30 m × 0.25 mm, 0.25 μm, Agilent technologies) egin zen eta erabilitako gas garraiatzaile H_2 izan zen 1,3 mL/min-ko fluxuan. MS transferentzia -lerroa, ionizazio-iturria eta kuadrupoloak 310 °C-an, 230 °C-an eta 150 °C-an mantendu ziren, hurrenez hurren. Neurketa guztiak scan (50-525 m/z) eta hautatutako ioi-monitorizazioan (SIM) egin ziren, eta monitorizatutako ioiak **II. eranskinean** daude laburbilduta.

Analitoen bereizketa egiteko labean 2 metodo desberdin erabili ziren. 1. frakzioaren 2 μL hurrengo metodo kromatografikoa erabiliz banatu ziren: labea 60 °C-an mantendu zen minutu batez, eta 170 °C-raino igo zen 10 °C/min-ko abiaduran. Jarraian 15 °C/min-ko abiaduran 250 °C-raino igo zen eta 2 minutuz mantendu, azken igoera bat izateko 300 °C-ra 15 °C/min abiaduran (3 min mantendu). 2. frakzioa, aldiz, hurrengo metodoaren bidez neurtu zen: labea 60 °C-an mantendu zen 1,5 minutuz eta 170 °C-raino igo zen 10 °C/min abiaduran. Jarraian 15 °C/min abiadurarekin 200 °C-raino igo eta 5 °C/min abiadurarekin 255 °C-raino. 15 °C/min abiaduran 285 °C graduan mantendu zen 5 minutuz, eta azkenik 300 °C-ra berotu zen labea 15 °C/min abiaduran. Metodoa amaitzeko, tenperatura horretan mantendu zen 5 minutuz.

2.4. Metodoaren kalitate-parametroak

Ur- eta behazun-laginak neurtzeko erabilitako metodoen kalitate-parametroak jarraian agertzen dira laburbildurik. % 78-117 (% RSD 1-21) eta % 63-122 (% RSD 1-27) izan ziren lorturiko berreskurapen zuzenduak ur- eta behazun-laginentzako, hurrenez hurren. Detekzio-mugei (LOD) dagokienez, 2-76 ng/L eta 1-313 ng/mL izan ziren ur-lagin eta behazun-laginentzako, hurrenez-hurren. Ur-laginen analisiari dagozkien kalitate-parametroak lan honen 3. kapituluan daude laburbildurik, eta behazun-laginei dagozkienak 4. kapituluan.

Laginen neurketetan zehar, zuri-laginak (Milli-Q) eta kontrol-laginak (kontzentrazio jakin batera dopatutako laginak) neurtu ziren. Zurien kasuan, LOD balioak baino txikiagoak lortu ziren, eta berreskurapen zuzenduak, aldiz, kalitate-parametro egokien tartean egon ziren.

2.5. Biokontzentrazio balioen estimazioa

BCF-faktorea, konposatu jakin batek behazunean duen kontzentrazioa eta uretan duen kontzentrazioaren arteko erlazioa bezala definitzen da (ikus **7.1 ekuazioa**). BCF-balioak 2.1 atalean azaldutako 3 diluzioentzako kalkulatu ziren. BCFak kalkulatzeko, lehenengo 3 egunetan neurtutako ur-kontzentrazioen batezbesteko balioak erabili ziren lehenengo bildu ziren arrain multzoarentzako (3. eguneko lagin-bilketa), eta 10 egunetan zehar neurtutako ur-kontzentrazioen batezbestekoa gainontzeko arrainentzako (10. eguneko lagin-bilketa). Uretan inolako analitorik neurtu ez zenean, baina bai behazun-laginetan, ur-laginen LOD balioa erabili zen BCFa kalkulatzeko.

$$\mathrm{BCF} = \frac{\mathrm{EDCen\ kontzentrazioa\ behazunean}\ \left(\frac{\mathrm{ng}}{\mathrm{mL}}\right)}{\mathrm{EDCen\ kontzentrazioa\ uretan}\ \left(\frac{\mathrm{ng}}{\mathrm{mL}}\right)}$$

7.1 ekuazioa

Arrainen behazunarekin egin bezala, PES-tutuetan BCF balioak kalkulatu ziren. Kasu honetan, PES-tutuetan ezin da "bio" terminoa aplikatu, eta ondorioz kontzentrazio-faktore (CF) bezala definitu behar da terminoa, eta **7.2 ekuazioan** laburbilduta dagoen bezala kalkulatzen da.

$$\mathrm{CF} = \frac{\mathrm{EDCen\ kontzentrazioa\ PES - tutuan}\ \left(\frac{\mathrm{ng}}{\mu\mathrm{L}}\right)}{\mathrm{EDCen\ kontzentrazioa\ uretan}\ \left(\frac{\mathrm{ng}}{\mu\mathrm{L}}\right)}$$

7.2 ekuazioa

3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

3.1. EDCen metaketa

Esposizio-esperimentuak iraun bitartean, ur-laginak 48 orduan behin aztertu ziren, ur-laginak esposizio tankean gehitu aurretik eta esposizioa bukatuta (48 h-ra) (ikus 2.2 atala). Orokorrean, ng/L-ng/mL mailako kontzentrazioak antzeman ziren (ikus **7.1 taula**) konposatu gehienentzako. Ez zen inolako igoera/jaitsiera nabarmenik antzeman analitoen kontzentrazioetan egunen artean. Salbuespena BPA izan zen, kontzentrazioen igoera detektatu baitzen esperimentua aurrera zihoan heinean. Kontroleko laginei dagokienez (itsasoko ura:ur geza) konposatu gehienak LOD balioetatik behera egon ziren NP mix eta BParen salbuespenarekin, LODtik gertu egon baitziren.

7.1 taula: *Araztegiko efluenteko ura:itsasoko ura nahaste desberdinetan (25:75 efluenteko ura:itsasoko ura (% 75eko diluzioa), 50:50 efluenteko ura:itsasoko ura (% 50eko diluzioa), 75:25 efluenteko ura:itsasoko ura (% 25eko diluzioa)) neurtutako analitoen kontzentrazioaren batazbestekoa, 3. eta 10. egunetan. Ur-laginen analisien desbideratze estandar erlatiboak % 1-21 bitartekoak dira.*

Analitoa	3. eguna			10. eguna		
	% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa	% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa
4*t*OP	< 12	< 12	< 12	< 12	< 12	< 12
4*n*OP	< 15	< 15	< 15	< 15	< 15	< 15
NP mix	29	57	85	28	55	83
E2	< 2	< 2	< 2	< 2	< 2	< 2
EE2	< 25	< 25	< 25	< 25	< 25	< 25
BPA	340	681	1.021	751	1.501	2.252
HHCB	295	589	884	345	689	1.034
AHTN	14	28	42	20	41	61
BBP	169	337	506	139	277	416
DEHP	1.452	2.905	4.359	1.331	2.664	3.996

Behazun-laginei dagokienez, lan honetan azterturiko konposatu guztiak gutxienez ng/mL mailan antzeman ziren (ikus **7.2 taula**). Alde batetik, AHTN konposatua izan zen LODtik gertu antzeman zen konposatu bakarra (3. eguna, % 75 diluzioan) eta, beste alde batetik, uretan detektatu ez ziren hormonak (ikus

7.1 taula) behazun-laginetan antzeman ziren, literaturan askotan aipatu den behazunak duen metatze-gaitasuna baieztatuz [1, 6, 13, 19]. Esperimentuak iraun bitartean arrainen kontrol-laginak ere aztertu ziren (n=3) eta lortutako kontzentrazioak **7.2 taulan** daude laburbilduta. Aipatu beharra dago kontroleko uretan konposatuak LOD azpitik egonik, kontroleko arrainen behazunean antzeman diren kontzentrazioak altuak direla. Antzemandako konposatuen jatorria ezin izan da ziurtatu. EE2, HHCB, AHTN eta BBP konposatuen kasuan, kontroleko arrainetan neurtu ziren kontzentrazioak ontzi diluituenean (25:75 efluente:itsasoko ura) neurtutakoen parekoak edo handiagoak izan ziren. Toxikologian, Hormesis fenomenoa konposatuen dosiarekin erlazionatzen da [34, 35]. Zehatzago esanda, dosi baxuetan konposatuen kanporatzea estimulatzen da, eta aldiz, dosi altuetan kanporatze-fenomenoa inhibituta geratzen da. Hormesis fenomenoa izan liteke kontzentrazio baxuetara esposatutako arrainek kontrolekoek baino kontzentrazio baxuagoa izateko arrazoia.

7.2 taula: *araztegiko irteerako ura:itsasoko ura nahaste desberdinetara (25:75 efluenteko ura:itsasoko ura (% 75eko diluzioa), 50:50 efluenteko ura:itsasoko ura (% 50eko diluzioa), 75:25 efluenteko ura:itsasoko ura (% 25eko diluzioa)) esposatutako arrainen behazunean neurtutako analitoen kontzentrazioaren batazbestekoa, 3. eta 10. egunetan.*

Analitoa	Kontrola	3. eguna			10. eguna		
		% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa	% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa
4*t*OP	28 ± 2	50 ± 3	59 ± 4	70 ± 3	76 ± 6	79 ± 16	113 ± 5
4*n*OP	87 ± 5	148 ± 7	148 ± 8	293 ± 53	278 ± 2	292 ± 31	314 ± 6
NP mix	4.925± 199	10.343 ± 451	9.741 ± 394	9.734 ± 775	13.180 ± 743	11.132 ± 1849	14.287 ± 1130
E2	97 ± 29	100 ± 24	149 ± 23	339 ± 114	320 ± 7	389 ± 114	131 ± 40
EE2	266 ± 60	212 ± 20	443 ± 12	634 ± 2	419 ± 36	713 ± 89	297 ± 1
BPA	1.874 ± 244	6.647 ± 1619	4.833 ± 630	2.326 ± 118	2.762 ± 421	2.090 ± 183	4.471 ± 225
HHCB	291 ± 76	122 ± 3	390 ± 101	1.003 ± 284	539 ± 12	946 ± 102	1.419 ± 400
AHTN	142 ± 101	29 ± 1	168 ± 120	816 ± 147	139 ± 5	433 ± 47	682 ± 123
BBP	251 ± 7	268 ± 28	403 ± 43	820 ± 96	1.198 ± 21	421 ± 123	1.788 ± 208
DEHP	1.212 ± 125	4.118 ± 664	4.409 ± 337	12.687 ± 418	10.421 ± 1046	3.710 ± 1148	10.896 ± 350

Diluzio desberdinetara esposatutako arrainen behazunean neurtutako kontzentrazioak (ng/mL) **7.1a** eta **7.1b irudietan** daude irudikatuta eskala logaritmikoan 3. eta 10. egunetarako, hurrenez hurren. 3. egunean (ikus **7.1a irudia**) lortutako kontzentrazioak arretaz behatzen badira, esan daiteke 4*t*OP, NP mix eta EE2 konposatuen kasuan aztertutako 3 diluzioetan pareko kontzentrazioak antzeman zirela, beraz, pentsa daiteke konposatu horien metaketa behazunean ez dela uretan dagoen kontzentrazioaren menpekoa. AHTNren kasuan (ikus **7.1a irudia**), aldiz, behazunean neurtutako konposatuen kontzentrazioa uretan dagoen kontzentrazioarekin zuzenki proportzionala da. Gainontzeko analitoen kasuan ez zen desberdintasunik ikusi (ikus **7.1a irudia)** bi ontzi diluituenetan, hau da, % 50eko eta % 75eko diluzioetan, baina bai ordea, konposatuak maila altuenean zeuden ontzian. Ontzi horretan neurtutako behazunetan, beste bi ontzietakoetan baino kontzentrazio handiagoak antzeman ziren 4*n*OP, E2, HHCB, BBP eta DEHP analitoen kasuan. Aldiz, kontrako joera ikusi zen BPAren kasuan, non analito gehiago zeuden ontzian, kontzentraziorik baxuena ikusi zen behazunean. Wu eta lankideek [19] antzeko konportamendua ikusi zuten 30 egunez BPAren kontzentrazio desberdinetara (0,1-1.000 µg/L) esposatutako heldugabeko zamo arruntetan (*Cyprinus carpio*) laborategi-baldintzetan.



7.1a irudia: *3. egunean neurtutako konposatuen log (ng/mL) balioak disoluzio desberdinetarako.*

10. egunean jasotako arrainen kasuan (ikus **7.1b irudia**) AP (4*t*OP, 4*n*OP eta NP mix), BPA eta HHCB molekulen kasuan ez zen inolako desberdintasunik ikusi diluzioen artean, beraz, kasu hauetan ere, pentsa daiteke behazunean dagoen kontzentrazioak ez duela uretan dagoen analitoen kontzentrazioarekiko menpekotasunik. Gainontzeko konposatuentzako tendentzia desberdinak ikusi ziren. Alde batetik, HHCB konposatuak ontzirik diluituenean (% 75eko diluzioa) jasotako behazunetan kontzentraziorik baxuena neurtu zen eta gainontzeko bi diluzioetan ez zen desberdintasunik ikusi. E2 konposatuak kontrako joera erakutsi zuen non ontzirik kontzentratuenean (% 25eko diluzioa) konposatu gutxien metatu zen behazunean. Azkenik, EE2 hormonaren kontzentraziorik altuena % 50eko ontzian antzeman zen, eta kontrara, 2 PEen kontzentraziorik baxuena ontzi berdineko arrainetan kuantifikatu zen.

Orokorrean 4*t*OP eta NP mix izan ziren 3. eta 10. egunean tendentzia berdina erakutsi zuten analitoak. Bi kasuetan, ez zen inolako desberdintasunik antzeman diluzioen artean ere, beraz, pentsa daiteke konposatu horiek asetuta aurkitzen direla behazunean. Gainontzeko konposatuentzako ez zen tendentziarik ikusi, eta lan gehiago egin behar da ondorio garbiak atera ahal izateko.



7.1b irudia: *10. egunean neurtutako konposatuen log (ng/mL) balioak disoluzio desberdinetarako.*

Konposatu desberdinentzako uretan eta behazunean neurtu ziren kontzentrazioak, eta **7.1 ekuazioa** erabiliz, BCF-balioak kalkulatu ziren. **7.3 taulan**, BCFen balio logaritmikoak agertzen dira laburbilduta. Konposatu guztientzako log BCF-balioak 3,62-5,68 tartean egon ziren, beraz, metatzeko gaitasuna nahiko handia dela [21] esan daiteke Kanadako gobernuak ezartzen dituen mugen arabera (BCF 5.000 edo log BCF 3,7 baino handiagoa).

Alde batetik, 2. faseko (*phase II*) transformazioa jasan dezaketen konposatuek (APak, hormonak eta BPAk) log BCF-baliorik handienak zituzten. Bestetik, BCF-baliorik txikienak zituzten konposatuak 1. eta 2. faseko metabolismoa jasan dezaketenak dira, hau da, PEak eta musketa fragantziak, alegia. Gure ikerketa taldeko lan batean antzeko emaitzak argitaratu ziren [13] musketa fragantzien kasurako.

7.3 taula: *Aztertutako analitoen log BCF-balioak diluzio desberdinetara esposatutako arrainen behazunean, baita BCFWIN v2.17 bidez kalkulatuko log BCF balio teorikoak ere.*

Analitoa	BCF teorikoak	3. eguna			10. eguna		
		% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa	% 75eko diluzioa	% 50eko diluzioa	% 25eko diluzioa
HHCB	3,48	2,62 ± 0,01	2,82 ± 0,11	3,05 ± 0,12	3,19 ± 0,01	3,14 ± 0,05	3,14 ± 0,04
AHTN	3,76	3,31 ± 0,09	3,78 ± 0,34	4,29 ± 0,08	3,84 ± 0,02	4,03 ± 0,05	4,05 ± 0,09
BBP	2,94	3,20 ± 0,05	3,08 ± 0,05	3,21 ± 0,05	3,94 ± 0,01	3,18 ± 0,13	3,63 ± 0,10
DEHP	5,78	3,45 ± 0,07	3,18 ± 0,03	3,46 ± 0,01	3,89 ± 0,04	3,14 ± 0,14	3,44 ± 0,11
4*t*OP	3,45	4,22 ± 0,03	3,99 ± 0,02	3,89 ± 0,04	4,40 ± 0,04	4,12 ± 0,09	4,10 ± 0,07
NP mix	2,74	5,56 ± 0,02	5,23 ± 0,03	5,06 ± 0,02	5,68 ± 0,02	5,30 ± 0,07	5,24 ± 0,08
4*n*OP	2,53	4,60 ± 0,02	4,29 ± 0,09	4,42 ± 0,01	4,87 ± 0,01	4,59 ± 0,05	4,45 ± 0,04
BPA	1,86	4,29 ± 0,11	3,85 ± 0,02	3,36 ± 0,07	3,57 ± 0,07	3,14 ± 0,04	3,30 ± 0,08
E2	2,39	5,30 ± 0,11	5,17 ± 0,15	5,35 ± 0,01	5,81 ± 0,01	5,59 ± 0,13	4,94 ± 0,08
EE2	2,13	4,53 ± 0,05	4,55 ± 0,05	4,53 ± 0,04	4,83 ± 0,04	4,76 ± 0,05	4,20 ± 0,06

3.2. Behazunaren metatze/eliminazio-gaitasunaren azterketa

Esperimentu osoan erabilitako 3 diluzio desberdinetako EDCen kontzentrazioa, kontroleko ontziko arrainen behazunean neurtutako kontzentrazioekin erlazionatu ziren ($K_{Esposatu}/K_{Kontrola}$). Lortutako erlazioa, log K_{ow} balioetan oinarritzen den BCF-balio teorikoekin (BCFWIN v2.17) erlazionatu zen. 25:75 eta 50:50 araztegiko ur:itsasoko ur diluzioen kasuan eraikitako modeloak ez ziren onak izan 0,5 baino txikiagoak ziren erregresio-koefizienteak (r^2) lortzen baitziren. Ondorioz, 2 diluzio horiek modelotik kanpo geratu ziren. 75:25 araztegiko ur:itsasoko ur diluzioaren kasuan, aldiz, r^2 > 0,84 baino balio handiagoak lortu ziren 3. eta 10. egunetarako **7.2 irudian** ikus daitekeen moduan. Log BCF-balio teorikoak altuak direnean (log K_{ow} balio altuak), kalkulatutako erlazioa ($K_{esposatu}/K_{kontrola}$) geroz eta handiagoa da. Erlazio horren arrazoia arrainak konposatu gehiago kanporatzearekin erlazioa izan dezake, konposatu arrotzen aurrean metabolismoa bizkortu egiten baita [34, 35]. Nahiz eta ikerketa gehiago egin behar diren horren inguruan, badirudi log K_{ow} handia duten konposatuek behazunaren bidez kanporatzeko joera handiagoa dutela. Hala ere, lan gehiago aztertu behar dira gai horren inguruan hipotesi guztiak baieztatu ahal izateko, baita log K_{ow} desberdinak dituzten konposatu gehiago ere.



7.2 irudia: *Log BCF teorikoaren eta $K_{Esposatu}/K_{Kontrolaren}$ arteko erlazioa.*

3.3. Material polimerikoen erabilera arrainaren behazunaren metaketa-ahalmena simulatzeko

Arrainak egon ziren ontzian jasotako PES-tutuak eta M-PES-ak aztertu ziren horiek arrainen behazunarekin duten metatze-ahalmena erkatzeko. Lehenik eta behin, araztegiko uren kontzentrazio baxuena zuen ontziko (% 75eko diluzioa) PES-tutuak eta M-PES-ak aztertu ziren. Lagin horietan lortu ziren kromatogramak oso zikinak ziren eta gainontzeko laginak ez aztertzea erabaki zen. PES-tutuen eta M-PESen arteko konparaketa BCF laginekin diluzio bakarrean egin zen.

Lan honetan zehar azterturiko konposatuen artean 4*t*OP, HHCB, AHTN, BBP eta DEHP konposatuak bakarrik determinatu ziren bai PES-tutuetan zein M-PESn, gainontzeko konposatuak ez baitziren adsorbatuta geratu. Beraz, behazunaren metatze-ahalmenarekin konparatzeko 5 konposatu horiek baino ez ziren erabili. PES-tutuen kasuan, % RSD egokiak (RSD < % 29) lortu ziren, baina ez ordea, M-PES laginen azterketan (RSD > % 50). Lortutako errepikakortasun eskasa literaturan askotan aipatu izan den mintzen "biofouling" efektuaren ondorioa izan daiteke [36, 37]. Beraz, PES-tutuak baino ez ziren kontuan eduki arrainen behazunarekin alderatzeko.

PES-tutuetan log CF-balioak kalkulatu ziren **7.2 ekuazioan** azaldutakoaren arabera. 3. eta 10. egunetarako lortutako balioak **7.4 taulan** laburbilduta daude. Aztertutako konposatu guztien kasuan BBParen salbuespenarekin, 3. egunean determinatu ziren log CF-balioak 10. egunean lortutakoak baino txikiagoak izan ziren. Beraz, pentsa daiteke PES-tutuak ez zirela orekara heldu 3. egunerako, eta 10. egunari dagokionez, aldiz, ezin da ziurtatu orekara heldu ziren edo ez. Zentsu horretan, esperimentu luzeago bat egin beharko litzateke orekan dauden edo ez ikusteko.

Behazun-laginetan kalkulatutako log BCF-balioak PES-tutuetan kalkulatutako log CF-balioekin alderatu ziren 3. eta 10. egunerako (ikus **7.4 taula**). 3. egunean kalkulatutako erlazioei dagokienez, aztertutako kasu guztietan lortutako balioak 1 baino txikiagoak izan ziren, beraz, behazunak metatze-ahalmen handiagoa du. Aipatu berri den moduan, badirudi PES-tutuak ez zirela orekara

heldu 3. egunerako, beraz, hori izan daiteke 1 baino balio txikiagoak lortzearen arrazoia. 10. egunean aldiz, tendentzia berdina ikusi zen 4*t*OP, HHCB eta AHTN analitoen kasuan (ikus **7.4 taula**) eta PEek kontrako joera izan zuten, hau da, 1 balioa baino handiagoak determinatu zen. Datu horiek azterturik, esan daiteke PES-tutuak 10. egunean ere ez zirela orekara heldu 4*t*OP, HHCB eta AHTN analitoen kasuan, baina bai PEen kasuan. Berriro ere, lan gehiago egin behar da horren inguruan, baina badirudi PES-tutuak egokiak izan daitezkeela etorkizunean biomonitorizazio tresna moduan erabiltzeko.

7.4 taula: *Log BCF balioak behazuna eta PES zuntzentzako 3. eta 10. egunetan, baita behazuna eta PES-tutuen arteko erlazio ere.*

	4*t*OP	HHCB	AHTN	BBP	DEHP
Log $BCF_{Behazuna}$, 3. eguna	4,22	2,62	3,31	3,20	3,45
Log $BCF_{Behazuna}$, 10. eguna	4,40	3,19	3,84	3,94	3,89
Log CF_{PES}, 3. eguna	4,84	3,46	4,37	3,71	3,62
Log CF_{PES}, 10. eguna	5,34	3,83	4,45	3,64	3,80
Log $BCF_{behazuna}$/log CF_{PES} 3. eguna	0,87	0,76	0,76	0,86	0,95
Log $BCF_{behazuna}$/log CF_{PES} 10. eguna	0,82	0,83	0,86	1,08	1,02

4. ONDORIOAK

Disruptore endokrinoak diren hainbat konposaturen metaketa-azterketa ikertu da araztegiko efluentearen diluzio ezberdinetara eta egun desberdinetan esposatutako lazunen behazunean. Orokorrean ezin izan da analitoen tendentzia garbirik ikusi diluzio eta egunen artean. Hala ere, aipatu behar da 3. Egunean diluzioen tendentzia nabariagoa ikusi zela eta 10. egunean aldiz, aztertutako 3 diluzioetan neurtutako kontzentrazioak antzekoagoak zian zirela. Beraz, pentsa liteke 3. egunean behazuna oraindik asetu gabe zegoela. Konposatuen kanporaketa maila propietate fisiko-kimikoekin (log K_{ow}arekin) erlazionatuta egon daitekeela

ikusi da, nahiz eta lan gehiago egin behar den gai honen inguruan.

Azkenik, material polimerikoekin lortutako emaitzekin lan handia dago oraindik egiteko, baina lehenengo ikerketek erakutsi dute PES polimeroa etorkizunean biomonitorizazio tresna moduan erabil litekeela ingurumeneko uren azterketa egiterako orduan. Lan honetan PES-tutuak behazunarekin guztiz konparagarriak ez direla ikusi den arren, 10. egunean lortu diren balioak behazunaren balioekiko hurbilagoak dira. Hori dela eta, pentsa liteke PES-tutuak ez zeudela oreka egoeran, eta horrek ateak zabaltzen ditu etorkizunean lan sakonago bat egiteko eta konparagarriak diren edo ez ikusteko.

5. ERREFERENTZIAK

[1] J. Yang, H. Li, Y. Ran, K. Chan, Chemosphere, 107 (2014) 439.

[2] C. Liscio, E. Magi, M. Di Carro, M.J.F. Suter, E.L.M. Vermeirssen, Environ. Pollut., 157 (2009) 2716.

[3] D.A.M. da Silva, J. Buzitis, W.L. Reichert, J.E. West, S.M. O' Neill, L.L. Johnson, T.K. Collier, G.M. Ylitalo, Chemosphere, 92 (2013) 1550.

[4] C. Bizarro, O. Ros, A. Vallejo, A. Prieto, N. Etxebarria, M.P. Cajaraville, M. Ortiz-Zarragoitia, Mar. Environ. Res., 96 (2014) 19.

[5] L. Tancioni, R. Caprioli, A.H. Dawood Al-Khafaji, L. Mancini, C. Boglione, E. Ciccotti, S. Cataudella, Int. J. Environ. Res. Public Health, 12 (2015) 1817.

[6] C. Martínez-Gómez, M. Lamoree, T. Hamers, M. van Velzen, J.H. Kamstra, B. Fernández, J. Benedicto, V.M. León, A.D. Vethaak, Aquat. Toxicol., 134-135 (2013) 1.

[7] M. Gorga, M. Petrovic, D. Barceló, J. Chromatogr. A, 1295 (2013) 57.

[8] M.M. Santos, M.A. Reis-Henriques, R. Guillot, D. Lima, R. Franco-Duarte, I. Mendes, S. Queirós, L.F.C. Castro, Comp. Biochem. Phys. C 148 (2008) 87.

[9] B. Taylor, D. Skelly, L.K. Demarchis, M.D. Slade, D. Galusha, P.M. Rabinowitz, Environ. Health Persp., 113 (2005) 1497.

[10] R.M. Mann, R.V. Hyne, C.B. Choung, S.P. Wilson, Environ. Pollut., 157 (2009) 2903.

[11] E. Bizkarguenaga, O. Ros, A. Iparraguirre, P. Navarro, A. Vallejo, A. Usobiaga, O. Zuloaga, J. Chromatogr. A, 1247 (2012) 104.

[12] B. Roig, W. Mnif, A.I. Hadj Hassine, I. Zidi, S. Bayle, A. Bartegi, O. Thomas, Crit. Rev. Environ. Sci. Technol., 43 (2013) 2297.

[13] O. Ros, J.K. Izaguirre, M. Olivares, C. Bizarro, M. Ortiz-Zarragoitia, M.P. Cajaraville, N. Etxebarria, A. Prieto, A. Vallejo, Sci.Total Environ., 536 (2015) 261.

[14] A.M.R. Ferreira-Leach, E.M. Hill, Mar. Environ. Res., 51 (2001) 75.

[15] O.P. Togunde, K.D. Oakes, M.R. Servos, J. Pawliszyn, Environ. Sci. Technol., 46 (2012) 5302.

[16] R.T. Pedersen, E.M. Hill, Environ. Sci. Technol., 36 (2002) 3275.

[17] G. Jonsson, T.U. Stokke, A. Cavcic, K.r.B. JÃ¸rgensen, J. Beyer, Chemosphere, 71 (2008) 1392.

[18] S. Chen, X. Yu, X. He, D. Xie, Y. Fan, J. Peng, Food Chem., 113 (2009) 1297.

[19] M. Wu, C. Pan, M. Yang, B. Xu, X. Lei, J. Ma, L. Cai, J. Chen, Environ.Toxicol. Chem. (2015) n/a.

[20] J. Liu, R. Wang, B. Huang, C. Lin, Y. Wang, X. Pan, Environ. Pollut., 159 (2011) 2815.

[21] G.o. Canada, Goverment of Canada, 1995, Toxic Substances Management Policy - Persistence and Bioaccumulation Regulations SOR/2000-107 http://laws-lois.justice.gc.ca/eng/regulations/SOR-2000-107/page-1.html#h-1, 1999.

[22] J.N. Huckins, M.W. Tubergen, G.K. Manuweera, Chemosphere, 20 (1990) 533.

[23] J. Bustamante, P. Navarro, G. Arana, A. de Diego, J.M. Madariaga, Talanta, 114 (2013) 32.

[24] L. Blanco-Zubiaguirre, A. Delgado, O. Ros, O. Posada-Ureta, A. Vallejo, A. Prieto, M. Olivares, N. Etxebarria, Environ. Sci. Pollut. Res., 21 (2014) 11867.

[25] C. Almeida, J.M.F. Nogueira, Talanta, 136 (2015) 145.

[26] E. Villaverde-de-Sáa, I. Racamonde, J.B. Quintana, R. Rodil, R. Cela, Anal. Chim. Acta, 740 (2012) 50.

[27] O. Ros, J. Aguirre, A. Prieto, M. Olivares, N. Etxebarria, A. Vallejo, Anal. Bioan. Chem. (2015) 1.

[28] A. Prieto, R. Rodil, J.B. Quintana, I. Rodríguez, R. Cela, M. Möder, Anal. Chim. Acta, 716 (2012) 119.

[29] V. Valencia, J. Franco, in: Á. Borja, M. Collins (Eds.), Elsevier Oceanography Series, Elsevier, 2004, p. 197.

[30] A.V.M.A. AVMA, Guidelines for the Euthanasia of Animals-American Veterinary Medical Association, 2013.

[31] A. Delgado, O. Posada-Ureta, M. Olivares, A. Vallejo, N. Etxebarria, Talanta, 117 (2013) 471.

[32] R. Gibson, C.R. Tyler, E.M. Hill, J. Chromatogr. A, 1066 (2005) 33.

[33] A. Vallejo, A. Usobiaga, M. Ortiz-Zarragoitia, M. Cajaraville, L. Fernández, O. Zuloaga, Anal. Bioanal. Chem., 398 (2010) 2307.

[34] E.J. Calabrese, Environ. Pollut., 138 (2005) 378.

[35] E.J. Calabrese, L.A. Baldwin, Nature, 421 (2003) 691.

[36] D.A. Álvarez, J.N. Huckins, J.D. Petty, T. Jones-Lepp, F. Stuer-Lauridsen, D.T. Getting, J.P. Goddard, A. Gravell, G.M. R. Greenwood, B. Vrana, Comprehensive Analytical Chemistry, Elsevier, 2007, p. 171.

[37] S. Lissalde, N. Mazzella, P. Mazellier, Sci. Total Environ., 488-489 (2014) 188.

Disruptore endokrinoetara esposatutako lupien (*Dicentrarchus labrax*) organo desberdinetako metaketa-azterketa, kontrolpeko baldintzetan

1. SARRERA

Azken urteotan, disruptore endokrino (EDC) moduan ezagutzen diren konposatuen erabilera izugarri hazi da eta, horrekin batera, horien arriskuarekiko ardura ere. EDCak, sistema endokrinoan aldaketak sortzen dituzten substantzia exogenoak, edo horien nahasteak, dira. Konposatu horiek organismo osasuntsuetan edo bere ondorengoetan kalteak sor ditzakete [1]. Europar Batasunak (EU) EDC moduan joka dezaketen 553 konposatu ebaluatu ditu dagoeneko. Aztertutako konposatu guztietatik, 194 konposatu lehenengo multzoan sailkatu ditu organismo osasuntsuetan duten eragin nabarmenengatik [2]. Asko dira EDC moduan sailkatu diren konposatuak; alkilfenolak (AP, bisfenol-A (BPA), fungizidak, pestizidak, surfaktanteak, konposatu farmazeutikoak eta estrogenoak, besteak beste [3-5]. Ingurumenean maila altuenean topa daitekeen EDCa BPA da. BPA, epoxi, polikarbonato eta poliester erretxinen fabrikazioan erabiltzen da % 60, % 30 eta % 10 mailan, hurrenez hurren [6]. APak alkilfenol polietoxilatuen degradazioaren eratorriak dira gehienbat. Konposatu etoxilatuak araztegietan degradatzen dira batik bat eta beraien erabilera nagusiena industrian eta nekazaritzan aurkitzen da [5]. 17 β-estradiol (E2) estrogenoa, emakumeen ugalketa-zikloa doitzeaz gain, osteoporosiaren prebentzioan, prostata eta bular minbizien terapian eta menopausia-sintomak arintzeko erabiltzen da [7]. Diestilbestrola (DES) estrogeno sintetikoa da eta 1940-1970 urteen bitartean erabili zen haurdun zeuden emakumetan abortuak saihesteko gehienbat. Zenbait urte geroago frogatu zen, DESak ametan eta umeetan sor zitzakeen osasun-kalteak eta, horregatik, bere erabilera debekatu egin zen 1978. urtean EUn [8].

EDCak eguneroko bizitzan etengabe erabiltzen dira eta saneamendu-sarean zehar, araztegietara (WWTP) heldu eta bertan aurrekontzentra daitezke. Araztegiak ez dira gai konposatu horiek guztiz arazteko eta, ondorioz, araztegiaren irteera-korrontea bilakatu da konposatu horiek ingurumenera isurtzeko iturririk nagusiena. Araztegien irteera-korronteaz gain, abeltzaintza, nekazaritza, akuikultura eta industriak dira konposatu horien ingurumeneko beste isurketa iturri nagusiak [4, 9]. Orokorrean, μg/L mailan edo kontzentrazio baxuagoetan aurkitzen dira ingurumen-uretan [4, 10]. Hala ere, kontzentrazio-

maila horiek nahikoak dira bertan bizi diren organismo bizidunei kalteak sortarazteko. Eragindako kalteen artean, besteak beste, malformazioak, toxikotasun teratogenikoa, ugalketa-arazoak, espezieen tamainaren txikitzea edo intersexualitatea aurkitu dira arrainetan, anfibiotan, moluskuetan, narrastitan eta ugaztunetan [5, 11]. EDCek sistema endokrinoa kontrolatzen duten konposatu naturalak ordezkatzen dituzte eta haien ohiko funtzionamendua oztopatzen dute. Alkilfenolak eta BPA, adibidez, sistema endokrinoko molekulak imitatzeko gai dira [12]. Estrogenoak, aldiz, mekanismo molekularra blokeatzeko gai dira, bai errezepzioan zein garraioan [13]. Beraz, oso garrantzitsua da kutsatzaile organiko horiek arrainen gorputzaren atal desberdinetan metatzeko duten gaitasuna aztertzea, beraien eraginak hobeto ulertu ahal izateko.

Orain arte egindako lan gehienetan, EDCak arrainen muskuluan eta arrain osoan aztertu dira [4, 14, 15]. Hala ere, geroz eta gehiago dira arrainen atal eta organo desberdinak kontuan hartzen dituzten ikerketak [16-18]. Aurretiaz azaldu bezala, EDCak oso kontzentrazio baxutan egon ohi dira uretan eta askotan detektaezinak izaten dira egun ezagutzen diren teknika analitikoekin. Arrainek, aldiz, konposatu horiek organo desberdinetan metatzeko (kontzentratzeko) joera erakusten dute. Modu horretan, uretan detekta ezinak diren konposatu asko, arrainetan topa daitezke eta konposatu horietara esposatuak izan direla ziurtatu [3, 19]. Gibela da konposatu naturalak zein toxikoak metabolizatzeko ardura duen organoa. Metabolizazio-prozesu horretan, konposatuek fase bakarra edo bi jasan ditzakete, I fasea eta II faseko metabolismoa, hain zuzen ere. I fasean, konposatuak, orokorrean, polarragoak diren metabolitoetan transformatzen dira; modu horretan, II fasea erraztu egiten da. II fasean, metabolitoak glukuronido, glukosido edota sulfato talde batekin lotzen dira, kaleratze- zein barneratze-prozesua errazteko [3, 19, 20]. Konposatu ez-polarrenek bi faseak jasaten dituzten bitartean, talde polarrak dituztenek II fasea bakarrik jasaten dute. Bigarren multzo horretan alkilfenolak, estrogenoak eta BPA aurkitzen dira. Transformazio-pauso horren ondoren, konposatuak behazunera garraiatzen dira gorputzetik kanporatzeko asmoz. Hori dela eta, behazuna da konposatu horien kontzentrazio-maila altuena espero den fluidoa [20-22]. Arrainek konposatuak metatzeko duten ahalmena biokontzentrazio-faktorearen (BCF) bidez determinatzen da (ikus **8.1 ekuazioa**) eta

parametro hori oso erabilgarria da konposatu kimikoek ingurumenean izan dezaketen eragina aurresateko. BCF konposatuak arrainaren atal desberdinetan eta uretan duen kontzentrazioaren arteko erlazioa bezala definitzen da. Metaketa hori hainbat parametroren menpekoa da: arrain-espeziea, sexua, tamaina, elikadura-ohiturak eta ingurumeneko baldintzak, besteak beste [5, 14]. Yang eta lankideen arabera, AP eta BPA konposatuentzako BCF balioak, muskuluan 100 baino txikiagoak diren bitartean, behazunean 1.000-10.000 bitartekoak dira zamo arrunta (*Carassius carassius*) espeziearentzat [3]. Ildo berean, gure taldearen esperientziaren arabera, EDC desberdinen BCF balioak 300.000 izatera iritsi dira lazunen (*Chelon labrosus*) behazunean [23].

$$BCF = \frac{K_{analito\ ehunean}}{K_{analito\ uretan}}$$

8.1 ekuazioa

BCF balioak kalkulatzeko egindako lan gehienetan, ingurumenean arrantzatutako arrainak erabili izan dira [5, 24], baina kasu horietan ingurumen-baldintzak ezin dira kontrolpean mantendu eta zaila da ondorio garbiak lortzea. Arazo horri aurre egiteko, laborategian egiten diren kontrolpeko esperimentuak dira irtenbide bat. Bertan, arrainak kontzentrazio ezaguneko kutsatzaile bakarrera zein nahaste batera esposatzen dira. Horrez gain, posiblea da arrain-talde homogeneo batekin lan egitea, edo sexualki heldugabeko arrainekin, kasurako. Zenbait lanetan aipatzen da kutsatzaileen nahasteak gehitzen direnean, beraien efektua arrainean asko handitzen dela [21, 25, 26]. Brack eta langileen esanetan [27], adibidez, kutsatzaileak era indibidualean aztertzen direnean, beren toxikotasuna % 0,1 ingurukoa baino ez da. Ildo berean, Tang eta lankideek, era indibidualean eragin nabarmenik sortzen ez duten konposatuak nahasten direnean, eraginak sortzeko gai direla frogatu dute [28].

Lan honen helburua, beraz, efektu estrogenikoa duten familia desberdineko 4 EDCren nahasteak, (4-*tert*-oktil fenola (4*t*OP), BPA, DES eta E2) heldugabeko lupien (*Dicentrarchus labrax)* atal eta organo desberdinetan (muskuluan, plasman, gibelean, behazunean eta burmuinean) metatzeko duten joera aztertzea izan da.

2. MATERIALAK ETA METODOAK

2.1. Erreaktiboak eta materialak

Lan honetan erabili ziren erreaktiboen ezaugarri kimikoak **I. eranskinean** laburbildu dira. Analito guztiak banan-banan 1.000-4.000 ng/µL kontzentrazio bitartean prestatu genituen metanoletan (MeOHtan) (HPLC kalitatea, LabScan, Dublin, Irlanda) eta disoluzio diluituagoak (100 ng/µL) hilero. Horrez gain, 1-5 ng/µL tarteko disoluzioak, egunero prestatu genituen esperimentuaren beharrizanen arabera. Azkenik, arrainen esposizioa egiteko, 65 ng/mL disoluzio bat prestatu genuen etanol:itsasoko uretan (20:80, b/b) (EtOH, *super pure* kalitatea, Teknokroma, Bartzelona). Prestaturiko disoluzio guztiak anbarrezko ontzietan gorde genituen -20 °C-an.

Azetona (Ace), MeOHa, n-hexanoa (Hex) eta azetonitriloa (ACN) Sigma Aldrich etxe komertzialak (Steinheim, Alemania) hornitu zizkigun eta etil azetatoa (EtOAc), aldiz, Labscan etxeak (Dublin, Irlanda). Erabilitako erreaktibo guztiak HPLC kalitatekoak ziren, likido-kromatografia–tandem masa-espektrometria (LC-MS/MS) neurketetan erabilitako MeOHa izan ezik (UHPLC-MS, Scharlab, Bartzelona). Azido azetikoa (HAc, % 99,7) Merck etxeari (Darmstandt, Alemani) erosi zitzaion. Ur purua (Milli-Q), Milli-Q ura ur-purifikazio sistematik (< 0,057 µS/cm, Millipore, Bedford, MA, EEBB) eskuratu zen. LC-MS/MS-an erabilitako fase mugikorra basikotzeko (pH=10,5), amoniakoa (% 25 NH_4OH, Panreac, Reixac, Bartzelona, Espainia) erabili zen. Behazun laginen hidrolisia burutzeko erabilitako disoluzio indargetzailea (0,1 mol/L, pH=6) prestatzeko potasio di-hidrogeno fosfatoa (KH_2PO_4, % 100, Panreac) eta amonio hidrogenofosfatoa ($(NH_4)_2HPO_4$, % 99, Merck, Darmstadt, Alemania) erabili ziren. Etil-4-aminobentzoato gatza (% 98, bentzokaina) Fluka etxe komertzialari (Steinheim, Alemania) erosi zitzaion. Entzimei dagokienez, VII-A motatako β–glukuronidasa erabili zen Escherichia Colitik lortua (Sigma-Aldrich, Steinheim, Alemania). Entzima hori Milli-Q uretan disolbatu zen, 1000 U/mL kontzentrazioa lortzeko. Azkenik, Heparina Sigma-Aldrich etxe komertzialari erosi zitzaion.

Erauzketan erabilitako polietersulfona (PES) hodiak, tutu-forman (0,7 mm-ko kanpo diametroa, 1,43 g/mL dentsitatea) Membrana (Wupertal, Alemania) etxean erosi ziren. 1,5 cm luzerako zatiak moztu eta EtOActan garbitu ziren 24 orduz. Azkenik, PES-tutuak erabili aurretik, EtOActik atera eta paper garbi batekin lehortu ziren.

Lagin solidoen garbiketa urratsa egiteko, ENVI-CARB (ENVI, gainazal espezifikoa 100 m^2/g, 120/400 zulo sarea) Supelco etxeak (Steinheim, Alemania) hornitu zuen eta amina primarioa eta sekundarioa (PSA, gainazal espezifikoa 570 m^2/g) Agilent etxeak (Avondale, PA, USA). Horrez gain, fase solidoko erauzketa dispertsiboan (dSPE) magnesio sulfatoa ($MgSO_4$, extra purua, Scharlab) ere erabili zen. Azkenik, dSPE urratsean erabilitako zentrifuga (5424) Eppendorf etxearena (Hamburgo, Alemania) izan zen.

2.2. Lagin-bilketa

Heldugabeko (~20 g, 5 hilabete) lupiak (*Dicentrarchus labrax*) Tinamenor (Pesues, Kantabria, Espainia) arraintegian erosi ziren 2015eko apirilean. Esperimentua hasi aurretik, arrainak, laborategiko girora moldatzeko hilabetez eduki ziren itsasoko ura zuen akuario batean eta egunean behin eman zitzaien jaten (lupien pisuaren % 5 inguru, Mar Perla MPL, 1.5). Lupientzat erabilitako argi periodoa 12 ordukoa izan zen.

Egokitze-garaiaren ondoren, 340 lupia, 0,22 µm filtroetatik iragazitako itsasoko ur garbia zuen 250 L-ko bi ontzitara pasatu ziren. Ontzietako itsasoko ur hori, 8,5 L/h-ko emari konstante batekin aldatzen zihoan. Horrela, 48 orduz behin 250 L-ko ontzia urez berrizten zen. Ontzi batean (kontrol-ontzia deituko dena), ez zen inolako kutsatzailerik gehitu eta bestean (esposizio-ontzia), aldiz, 20 mL/h-ko emariarekin, EtOH:itsasoko (20:80, v/v) uretan disolbatuta zeuden BPA, DES, E2 eta 4*t*OP kutsatzaileak ponpatu ziren. Horrela, analito bakoitzeko 150 ng/L-ko kontzentrazioa nominala espero zen. Lupiak 10 egunez egon ziren kontzentrazio horretara esposatuak eta, ondoren, 12 egunetako arazketa (kutsatzailerik gabe) jasan zuten.

Esperimentua hasi eta 1., 3., 7. eta 10. egunetan, 10 lupia jaso ziren ontzi bakoitzetik. Esposizio-denbora amaituta, esposizio-ontzian geratutako arrainak, ontzi garbi batera eraman ziren arazketa urratsari hasiera emateko. Arrainak, arazketa hasi eta 4., 7. eta 12. egunen ostean jaso ziren.

Arrainak lan honen 4. kapituluan azaldu bezala tratatu ziren. Laburki, arrainak bentzokainaz saturatua zegoen ontzi txiki batean sartu ziren. Ondoren, arrain bakoitzaren luzera eta pisua jaso zen eta odola atera zitzaien heparina zuen xiringa baten laguntzaz. Arrainak dekapitazioz sakrifikatu ziren, UPV/EHUko Animali Esperimentalen Etika Batzordearen ebaluazio positiboa zuen protokoloa betez. Azkenik, zorroztutako bisturi batez lupia zabaldu eta gibela, muskulua, burmuina eta behazun-poltsa osoa jaso ziren esterilizaturiko krio-ontzietan. Odol-laginak berehala zentrifugatu ziren plasma eskuratzeko. Lagin guztiak nitrogeno likidotan (N_2) izoztu ziren. Plasma, behazuna eta burmuina -80 °C-an gorde ziren eta muskulua eta gibela, 48 orduz liofilizatu ostean, -20 °C-an.

2.3. Laginen azterketa

2.3.1. Lagin solidoen azterketa

Lagin solidoak (arrain-burmuina, gibela eta muskulua) lan honen 6. kapituluan deskribatu bezala aztertu ziren. Laburki, 0,1 g burmuin (n=3) eta 0,5 g muskulu (n=3) edo gibel (n=3) ontzi batean pisatu eta 1 ng/µL zuen trazatzaile-disoluzioaren ([$^2H_4$]-4*n*-nonilfenola ([$^2H_4$]-NP), [$^2H_3$]-17β-estradiola ([$^2H_3$]-E2), [$^2H_{16}$]-bisfenol-A ([$^2H_{16}$]-BPA)) 25 µL gehitu ziren. Ondoren, 10 mL Hex:Ace (50:50, b/b) gehitu eta lagina 5 minutuz erauzi zen ultrasoinu fokatuaren (FUSLE) bidez (Sonopuls HD 2070, 20 Hz, 70 W, Bandelin electronic GMBH & Co. KG, Berlin, Alemania). FUSLEaren lan-baldintzak, % 33-ko potentzia eta 0,8 s lanean eta 0,2 s itzalita izan ziren 5 minutuz. Ondoren, laginak 0,45 µm-ko poliamidazko (PA) iragazkitik (Chromafil Ao, Macherey-nagel, Düren, Alemania) pasarazi eta disolbatzailea lehorreraino lurrundu egin zen N_2 korronte baten pean (Turbovap® LV, Caliper, 176 life sciences, USA). Erauzia 1 mL ACNtan berreratu zen eta 100 mg ENVI eta 100 mg $MgSO_4$ zituen 1,5 mL-ko Eppendorf hodi batera pasatu zen. Gibelaren kasuan 100 mg PSA ere gehitu ziren. Eppendorf hodia, 1 minutuz

irabiatu ostean, 5 minutuz zentrifugatu zen 4.000 bira/min-ko abiaduran. Gaineko ACN geruza, saiodi batean jaso eta prozesu osoa birritan errepikatu zen. Azkenik, 2 ACN geruzak batu, lehortzeraino lurrundu eta burmuinaren kasuan, 150 µL MeOHetan berreratu ziren konposatuak eta, gibelaren eta muskuluaren kasuan, 200 µl-tan. Azkenik, erauziak, 0,2 µm politetrafluoroetileno (PTFE) iragazkitik (13 mm diametroa, 0,2 µm poro tamaina, Teknokroma, Espainia) iragazi ziren LC-MS/MS analisi aurretik.

2.3.2. Lagin likidoen azterketa

Lagin likidoak lan honen 5. kapituluan azaldu bezala aztertu ziren. Laburki azalduz, 100 µL arrain-behazun (n=1) edo plasma (n=2) 10 mL-ko ontzi batean pisatu, eta 800 µL Milli-Q, 1,5 mL fosfato disoluzio indargetzaile (0,1 mol/L, pH=6) eta 1 ng/µL zuen trazatzaileen disoluzioaren ([$^{2}H_{16}$]-BPA, [$^{2}H_{4}$]-NP eta [$^{2}H_{3}$]-E2) 25 µL gehitu ziren lagin bakoitzean. Behazunaren kasuan, 200 µL β-glukuronidasa (1.000 U/ml) ere gehitu ziren. Aurretiaz egokitutako 5 PES-tutu (1,5 cm-koa bakoitza) eta PTFEz estalitako irabiagailu bat gehitu ziren ontzi bakoitzean eta, ontziak ondo itxi ostean, erauzketa 3 orduz utzi zen 37 °C-an eta ~550 bira/min-ko abiaduran (RT 15 power, Ika Werkr, Staufen, Alemania). Behin erauzketa amaituta, PES-tutuak ontzitik atera eta Milli-Q uraz garbitu ostean, eskuzapi garbi batez lehortu ziren bertan gera zitezkeen hondar-arrastoak kentzeko. Jarraian, PES-tutuak 1,5 mL anbarrezko Eppendorf hodi batean sartu ziren eta ultrasoinu- (US) bainuan 300 µL MeOH erabiliz, analitoak 16 minututan erauzi ziren (USB Axtor by Lovango). MeOH erauziak lehortu arte lurrundu ziren, 200 µL MeOHetan berreratu eta 0,2 µm PTFE iragazkietatik iragazi ziren LC-MS/MS-aren bidez aztertu aurretik.

2.3.3. Ur-laginen azterketa

Ur-laginak lan honen 3. kapituluan azaldu bezala aztertu ziren LC-MS/MS erabiliz. 150 mL ur (n=3) 0,45 µm-ko iragazkietatik iragazi ziren eta, kasu honetan, ez zitzaion inolako gatzik gehitu itsasoko urak jatorriz duen gazitasuna dela eta. Ontziari, ur-laginaz gain, aurretiaz EtOActan garbitutako 1,5 cm-ko 5 PES-tutu, PTFEz estalitako irabiagailua eta analitoen trazagarriak ([$^{2}H_{16}$]-BPA, [$^{2}H_{4}$]-NP eta

[$^{2}H_3$]-E2) zituen disoluzioa gehitu zitzaizkion 200 ng/L-ko kontzentrazioa izan arte. Erauzketarekin hasteko ontziak itxi eta inguru tenperaturan, laginak 1200 bira/min-ko abiaduran (15 posiziotako plaka birakari magnetikoa, Gerstel, Mulheim an der Ruhr, Alemania) irabiatzen utzi ziren gau osoan zehar.

Erauzketa urratsa amaitu ostean, PES-tutuak atera, gatz arrastoak kentzeko Milli Q uraz garbitu eta, azkenik, eskuzapi garbi batez lehortu ziren. PES-tutuak, eppendorf hodi baten sartu eta 300 µL MeOH erabiliz, analitoak ultrasoinu-bainuan erauzi ziren. Azkenik, LC-MS/MSaren bidez aztertu aurretik, laginak 0,2 µm-ko PTFE-zko iragazkitik pasatu ziren.

2.4. LC-MS/MS-aren bidezko azterketa

Laginak lan honen 6. kapituluan deskribatu bezala aztertu ziren LC-MS/MS-aren bidez (Agilent HPLC 1260 seriea, Agilent 6430 masa-espektrometro kuadrupolo hirukoitza-elektroesprai-ionizazio iturri bati lotua). Laburbilduz, 5 µL erauzi (plasma, behazun, muskulu eta burmuinaren kasuetan) eta 3 µL gibelaren kasuan, partzialki porotsua den *Ace Ultra Core Super C_{18} core-shell* (2,1 mm x 50 mm eta 25 µm-ko partikula tamaina) zutabean injektatu ziren 30 °C-an eta 0,3 mL/min–ko fluxuan. Erabilitako fase mugikorrak Milli-Q:MeOH (95:5, b/b) (fase mugikor A) eta MeOH:Milli-Q (95:5, b/b) (fase mugikor B) izan ziren % 0,05 NH_4OH-tan. Bereizketa kromatografikoa hurrenkera honetan egin zen: % 30 B konposizioa 4 minutuz era isokratikoan mantendu zen eta % 60 B-raino igo zen 3 minuturen tartean. Ondoren, 10 minutu behar izan zituen % 80 B konposizioa lortzeko eta konposizio horretan 10 minutuz mantendu zen. Azkenik, hasierako baldintzetara bueltatu zen (% 30 B) 3 minututan eta beste 10 minutuz baldintza horietan mantendu zen (injekzio osteko denbora). LC-MS/MS-an erabilitako N_2 gasak (purutasun altua, % > 99,999) Messer-ek (Tarragona, Espainia) eta Air Liquid-ek (Madrid, Espainia) hornitu zituzten. Gas horiek talka-eragile moduan eta nebulizatzaile eta gas-lehortzaile moduan erabili ziren, hurrenez hurren. MS/MS-aren ionizazio-baldintzei dagokienez, hurrengo eran finkatu ziren: N_2 fluxua 11 mL/min-tan, kapilarraren boltaia 4.000 V-tan, nebulizazio presioa 52 psi-tan eta iturriaren tenperatura 325 °C-tan. Azkenik, laginak erreakzio anitzeko monitorizazioaren (MRM) bidez kuantifikatu ziren, eta analisian zehar jarraitutako

trantsizioak eta erabilitako talka-energia (CE), polaritatea eta gelaxka-boltaia (CV), **III. eranskinean** daude laburbilduta. Instrumentuaren kontrolerako eta datuen tratamendurako erabilitako programa Masshunter Workstation (B.06.00, Agilent) izan zen.

2.5. Kalitate-parametroak

Lan honetan aztertu diren 4 EDCak trazatzaileekin zuzendutako kanpo kalibratu baten bidez kuantifikatu ziren, detekzio-muga-(LOD) 2.500 ng/mL bitartean. Hala ere, kasu bakoitzean, laginetik gertuen zeuden balioak baino ez ziren erabili, beti ere 7 puntuko kalibratu bat mantenduz. Kasu guztietan lorturiko determinazio-koefizientearen (r^2) balioak 0.99 baino handiagoak izan ziren. Erauzketa metodo desberdinetan lorturiko berreskurapen zuzenduak (%), desbideratze estandar erlatiboak (RSD) eta metodoaren detekzio-mugak (MDL) **8.1 taulan** laburbilduta agertzen dira azterturiko analito guztietarako.

8.1 taula: *Lan honetan zehar erabilitako metodoen kalitate-parametroen laburpena: berreskurapen erlatiboa (%), % RSD eta MDL (ng/mL).*

	% Berreskurapen zuzendua	% RSD	MDL (ng/mL)
Gibela	62-108	2-19	10-35
Muskulua	90-132	1-11	3-22
Burmuina	66-120	2-26	3-23
Behazuna	73-125	1-24	1-15
Plasma	71-144	2-10	8-49
Ura	89-118	5-16	0,03-0,09

3. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

3.1. Organoen neurriak eta itxura

Esperimentuak iraun bitartean jasotako arrain guztien luzerak (cm), arrain osoaren pisuak (g) eta arrain bakoitzaren gibelaren pisuak (g) jaso ziren (ikusi **8.2 taula** arrainen multzo osoaren batezbestekoa eta desbideratze estandarra ikusteko). Luzerari dagokionez ez zen inolako desberdintasunik ikusi azterturiko

talde eta egunen artean ($F_{esperimentala}$=2,2-4,4 < $F_{kritikoa}$=4,5) ikus **8.2 taula**). Arrain osoaren pisua kontuan hartzen badugu, ez zen desberdintasun esanguratsurik egon ($F_{esperimentala}$=1,4-4,2 < $F_{kritikoa}$=4,5) lehenengo 7 egunetan, baina bai ordea 10. egunean ($F_{esperimentala}$=6,3 > $F_{kritikoa}$=4,45), esposizioko ontzian arrainen pisu galera bat ikusi zen (ikus **8.2 taula**). Arazketa-garaian, aldiz, arrainek pisua irabazi zuten hasierako balioetara helduz (ikus **8.2 taula**). Esperimentu osoan zehar arrainei jaten eman zitzaien arren, arazketa-egunetara heldu arte ez zuten gehiegi jan, emandako jana ontzien hondoan ikusten baitzen, eta hori izan zitekeen pisu-galera sortzeko arrazoietariko bat. Tancioni eta lankideek [30], aldiz, ezpain-estuko lasunen kasuan (*Liza ramada*) luzeraren eta pisuaren gorakada bat ikusi zuten araztegiko uretara esposatutako arrain-talde batean kontrolekoekin alderatuz.

8.2 taula: *Arrainen datu morfometrikoak eta gibelaren organometria (batezbestekoa ± desbideratze estandarra): luzera (cm), arrain osoaren pisua (g) eta gibelaren pisua (g).*

	Luzera (cm)		Arrainaren pisua (g)		Gibelaren pisua (g)	
	Esposatua	Kontrola	Esposatua	Kontrola	Esposatua	Kontrola
1.eguna	13,4 ± 0,9	12,8 ± 0,6	24,48 ± 5,41	22,61 ± 4,40	0,54 ± 0,18	0,43 ± 0,12
3.eguna	13,2 ± 0,9	13,3 ± 0,6	25,37 ± 4,69	24,92 ± 2,20	0,51 ±0,14	0,48 ± 0,19
7.eguna	13,4 ± 0,6	13,2 ± 1,6	24,89 ± 3,90	24,18 ± 6,56	0,38 ±0,14	0,49 ± 0,16
10.eguna	12,8 ± 0,6	13,6 ± 0,9	20,76 ± 2,51	25,13 ± 3,77	0,25 ±0,09	0,41 ± 0,14
14.eguna	13,3 ± 0,9	---	24,09 ± 4,33	---	0,41 ±0,16	---
17.eguna	13,3 ± 1,0	---	23,16 ± 4,91	---	0,34 ±0,15	---
22.eguna	13,1 ± 0,9	---	23,41 ± 6,08	---	0,28 ±0,22	---

Azkenik, gibelaren pisuari erreparatzen badiogu, esposizioko lehenengo bi egunetan pisua nahiko egonkor mantendu zen, baina 7. egunetik aurrera pisuak behera egin zuen (ikus **8.1 irudia**). Nahiz eta pisu galera 7. egunetik aurrera somatu, ez zen desberdintasun esanguratsurik nabaritu esposizioko eta kontroleko ontzien artean ($F_{esperimentala}$=2,1-4,2 < $F_{kritikoa}$=4,5) baina bai 10. egunean ($F_{esperimentala}$=9,1 > $F_{kritikoa}$=4,5). Behin arazketa egunetara helduta, bazirudien gibelaren pisua berreskuratuko zela (14. eguna), baina hurrengo egunetan berriro beherakada bat ikusi zen, esposizioko 7. eta 10. egunetako pareko balioak lortuz. Badirudi, EDCen ondorioz, gibela kaltetu zela, eta arrain osoaren pisuarekin gertatzen denaren kontrara, arazketa garaian ez zela gai izan hasierako balioak berreskuratzeko.



8.1. irudia: *EDC nahasketara esposatutako arrainen gibelen pisua (n=10). 1-10 egunak esposatutako garaiari dagozkio eta 14-22 egunak arazketa garaiari.*

